

BORDAËLE KANTUZ



MÀISON
BÀSQUE
DE BORDEAUX

Et la fête prend tout son sens!

2021



Et la fête prend tout son sens...

Ce carnet de chants vous accompagne notamment lors des activités organisées par la Maison basque : soirées chants, fête de la musique, repas cidrerie, brunchs, afterworks, etc.

Il vous propose un large choix alliant époques et genres différents afin qu'ils soient chantés par tous. Joyeux, nostalgique ou engagé, le chant basque est **un remède absolu à la morosité !**


Située au cœur de Bordeaux, la Maison basque est une association où se rassemblent depuis plus de 70 ans tous les amateurs de la culture basque.

A la Maison basque, vous pouvez :

Apprendre le basque

- | | |
|-----------------|--|
| Danser | Chanter |
| Cuisiner | Jouer au mus,
le poker basque |
| | Faire du sport |

Notre boutique : le meilleur du Pays basque !
Venez découvrir de nombreux produits fermiers et
artisanaux : du bon, du beau, du bio !



Notre restaurant à l'esprit bodega !

Venez découvrir notre
comptoir associatif :
pintxos, planches de
charcuterie, et plats
traditionnels, dans une
ambiance festive et
conviviale.



« *Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi* » « *Je suis né en chantant et je veux vivre en chantant* » sont les premières paroles de « *Kantuz* ».

Comment mieux dire la place centrale du chant au Pays Basque ? De l'extérieur, cela peut, à première vue, paraître « *folklore* », mais le chant basque est bien plus que cela. **Il est culture, mémoire des anciens, racines profondes, moyen d'expression en perpétuel renouvellement.** Il est viscéralement ancré en nous et fait partie intégrante de nos vies, nous accompagnant de notre naissance à notre mort en passant par tous les événements heureux ou malheureux qui l'auront jalonnée.

L'essence même du chant est avant tout de donner.

Nous tous qui avons cette passion connaissons le frisson, l'émotion du partage du chant. Tout à coup, des voix qui parfois ne se connaissaient pas du tout, s'accordent, se mêlent... Les sourires flottent, les regards se croisent, et là c'est la **magie du partage**, d'une belle rencontre qui marquera votre mémoire!

Hélène Héguy, Chef de chœur
Groupe d'animation Kantuz

ĀHOSKERĀ

(prononciation)

La langue basque est très facile à lire et prononcer, dès que l'on tient compte des recommandations suivantes : toutes les lettres se prononcent, avec quelques différences par rapport au français.

e : « é »

g : « gu »

s, x : « ch »

z : « ss »

r : presque comme « l »

rr : « r » (avec l'accent basque !)

u : « ou »

ü : « u » (utilisé seulement en Soule)

j : dans la plupart des régions, prononcé comme le « i » (en Soule comme le « j », dans certaines zones du Pays basque sud comme la jota espagnole)

Exemples :

<i>Basque</i>	<i>Prononciation</i>	<i>Signification</i>
Gaua	«ga-ou-a»	le soir, la soirée
Eguna	«é-gou-na»	le jour, la journée
Emaztea	«é-masse-té-a»	la femme, l'épouse
Gizona	«gui-soo-na»	l'homme
Jauna	«i-a-ou-na»	le monsieur, seigneur
Haizea	«haille-ssé-a»	le vent
Hemen	«hé-mène»	ici
Herria	«hé-ri-a»	le pays, village, peuple
Itsasoa	«ite-cha-cho-a»	la mer
Lurra	«lou-ra»	la terre
Txoria	«tcho-li-a»	l'oiseau
Ura	«ou-la»	l'eau
Zazpi	«sasse-pi»	sept
Zerua	«sé-lou-a»	le ciel

Aberriaren mugak.	11
Agur Xiberua.	12
Agure zaharra.	13
Aita semeak.	14
Aldapan gora.	15
Andre Madalen.	16
Anttoni.	17
Arbola gainean.	18
Ardiak lerro lerro.	19
Ardo xuria.	20
Arrantzaleak.	21
Arrosako zolan.	22
Askatasunera.	23
Atarratzeko gaztelua.	24
Athenri-ko zelaiak.	25
Azken dantza hau.	26
Badira hiru aste.	27
Bagare.	28
Bake mina.	29
Baldorba.	30
Bale ihizi.	31
Baratze bat.	32
Batasuna.	33
Battita aux fêtes de Bayonne.	34
Begiak farrez farrez.	35
Boga boga.	35
Egun da Santi Mamiña.	36

Eia eia + Etxahun iruri.	37
Eki eder.	38
En el pozo Maria Luisa.	39
Eperra.	40
Eskuaduna naiz eta.	41
Euskal Herrian Euskaraz.	42
Euskal rock & Roll.	43
Euskotarrak gira + Bat bi hiru lau.	44
Ez zaitetz joan oraindik.	45
Furra furra.	46
Galdetzen.	47
Gogoaren baitan.	48
Goizean goiz jeikirik.	49
Goizian argi astean.	50
Gora ta gora beti.	50
Guk euskaraz.	51
Haurrak ikasazue.	52
Hegoak.	52
Herri behera.	53
Ikusten duzu goizean.	54
Ilargia.	55
Indar hartu.	56
Itsasontzi baten.	57
Ituringo arotza.	58

Ixil ixilik dago.	59
Ixiltasuna.	60
Jaun Barua.	61
Jeiki jeiki.	62
John zaharra.	62
Joseba Elozegi.	63
Kantuz.	64
Kinkiri kinkuru.	65
Kolore kolore.	66
Kontrapas.	67
La camioneta.	68
Langilek.	69
Lagun etor gurekin.	70
Lau teilatu.	71
Lehenik adiskideak.	72
Les fêtes de Mauléon.	73
Lili bat ikusi dut.	74
L'immortela.	75
Lore polit baten bila.	76
Loretxo + ô bella ciao.	77
Maitasun nortasun.	78
Maitiak galdegin zautan.	79
Martxa baten lehen notak.	80
Matalas.	81

Mendian gora haritza.	82
Mon dieu que j'en suis à mon aise.	83
Neure Andrea.	84
Nevadarat joan nintzan.	85
Nola bizi hala kanta.	86
Oi ama Eskual Herri.	87
Oi gu hemen.	88
Oihan beltzian.	89
Oi kanta berri.	90
Ondarrabia ta Donostia.	91
Orhiko txoria.	92
Peña Baiona.	93
Peña Baiona (Euskaraz).	94
Pilotarien biltzarra + Xoriak bezala.	95
Pottoka.	96
Se canto.	97
Sotoko oporra.	98
Topa dagigun.	99
Triste bizi naiz.	100
Txalaparta.	101
Ttiki ttikitik.	102
Txikia.	103
Txuri urdin.	104

Urraskide.	105
Urte batez.	106
Xalbadorren heriotzean.	107
Xorieri mintzo zen.	108
Zantzikitin.	109
Zazpi Euskal Herriek.	110
Zazpiak Oihal Batetik.	111
Ziburutik Sararat.	112

AGUR JAUNAK

(Herrikoia)

Agur Jaunak, Jaunak agur, agur t'erdi (bis)
 Jaungoikoak eginak gire
 zuek eta bai gu ere.
 Agur Jaunak ; Agur,
 Jaunak agur,
 hemen gire, agur Jaunak.



Ce chant tient une place particulière dans le répertoire basque donc dans ce recueil. Il rend hommage, et salue les présents avec respect. Il ouvre ou clôture nombre de cérémonies ou de réunions.

ABERRIAREN MUGAK*(Joxerra Garzia / Txomin Artola)*

Nire aberria lurra bezain zaharra da
 baina ez da lurra bakarrik.
 Haizeak bezala inguratzen nau eta
 lotzen, askatzen nauelarik.

Nire aberria suaren antzekoa da
 beti bera, berria beti.
 Epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean
 ta erretzen ere badaki.

**Aberriaren mugak, euskararenak
 gure baitan daude gehienak.
 Euskara zabalduaz lau haizetara
 zabalago egiten gara.**

Nire aberria harrizko herria da,
hitzezkoa ta hitzezkoa,
 altzairuzko txakolin, ardo zurezkoa
 eta hondar anonimoa.

Nire aberria burdin bihurria da,
 oroimenean arindua,
 itsaslaminen baten herdoilezko kantu,
 etorkizunez fosildua.

Aberriaren mugak...(bis)

AGUR XIBERUA (Etxahun)

Sor lekia ütirik gazte nintzalarik
 Parisen sartü nintzan kurajez beterik,
 plazerez gose eta bürían hartürik
 behar niala alagera bizi.
 Bostetan geroztik nigar egiten dit
 Xiberua zuri.

**Agur Xiberua,
 bazter güzietako xokorik eijerrena.
 Agur sor lekia,
 zuri ditit ene ametsik goxuenak.
 Bihotzan erditik,
 bostetan elki deitadazüt hasperena.
 Zü ütüz geroztik,
 bizi niz trixterik, abandonatürik.
 Ezpeita herririk,
 Paris ez besterik, zü bezalakorik.**

Palazio ederretan gira alojatzen
 eta segür goratik aide freska hartzen.
 Gain-behera so-ginik betzait üdüritzen
 Orhi gañen nizala agitzen.
 Bena ez dira heben bazterrak berdatzen
 txoriak kantatzen !

Ametsa lagün nezak ni Atharratzera
 ene azken egüen han iragaitera,
 Orhiko txoriaren kantüz behatzera.
 Parka ditzan nik egin nigarrak
 Hots ! Xiberotarrak,
 aintzinian gora Üskaldün bandera.

AGURE ZAHARRA*(Luis LLach ; Xabier Lete ; Gorka Knörr)*

Agure zahar batek zion bere etxe aurrean
goizean goiz lantokira irtetzen nintzanean :
Ez al dek, gazte, ikusten gure etxola zein dan ?
desegiten ez badugu, bertan galduko gera.

**Baina guztiok batera saiatu hura botatzera,
usteltzen hasia dago ta, laister eroriko da.
Hik bultza gogor hortikan,
ta bultza nik hemendikan,
ikusiko dek nola-nola laister eroriko dan.**

Baina denbora badoa, nekea zaigu hasi,
eskuak zartatu zaizkit, eta indarrak utzi.
Usteltzen badago ere, karga badu oraindik,
berriz arnasa hartzeko esaigun elkarrekin :

Agure zaharra falta da gure etxe ondotik,
haize txar batek hartu ta eraman du hemendik.
Haur batzuk ikusten ditut eta inguratutik,
aitona zaharraren kanta nahi diet erakutsi.

AITA SEMEAK*(Gabriel Aresti - Natxo de Felipe)***Aita semeak tabernan daude
ama-alabak jokoan. (bis)**

Berriz ikusi beharko dugu
 behi gizona auzoan,
 berriro ere ez da faltako
 trapu zaharrik kakoan.

Eta lapurrek ohostu dute
 guk gendukana etxean,
 eta gu gaude erdi biluzik
 beti iñoren menpean.

Geurea dugu erru guztia,
 geurea dugu osoan,
 ez iñori ba errua bota
 Euskal Herria hiltzean.

Baina gaztea naiz eta daukat
 etorkizuna eskuan,
 ez zaigu hilgo Euskal Herria
 ni bizi naizen artean.

ALDAPAN GORĀ

(Huntza)

Mendian gora burua galtzen dut maiz
 Herriko kaleetan sarritan galdu izan naiz
 Nork bereizi zituen kultura, lurra, sua eta ura ?
 Gizakion arteko lotura, ere ez al da natura

Aldapan gora, pausorik pauso
Aldapan beheara, auzorik auzo
Gaztainondo ta pago eskultura arraro
Kaleak edo mendiak
zer galtzen gaitu gehiago ? (x2)

Berriro galduta gabiltza, hau da hau marka
 Ezin da ulertu aurrean daukagun mapa
 Euskaldun peto peto
 Bai baina ardi galduen pare
 Nahiago det ibili halare, norabiderik gabe

Aldapan gora, pausorik pauso
Aldapan beheara, auzorik auzo
Gaztainondo ta pago eskultura arraro
Kaleak edo mendiak zer galtzen gaitu gehiago ? (x2)

ANDRE MADALEN*(Herrikoia)*

Egun batean ni ari nintzen
 andrea ezin ikusirik
 erran zautaten : « edana dago
 ez egin hari kasurik ! »

**Andre Madalen, andre Madalen
 laurden erdi bat olio
 andreak zorrak egin eta gero
 Jaunak pagatuko dio.**

Nere andreak badaki josten
 eta lisatzen taula gainean ;
 arno xuria saldan emanik
 maite du oroz gainetik

Bere gizona utzirik etxean
 hantxe da bera patar batean :
 indarrrik gabe, mozkorrarekin
 lurrera joaiten da behin !

ANTTONI

(*Nemesio Echaniz*)

**Anttoni ! Anttoni ! Zure atean nago ni.
Ai, Antton ! Ai, Antton ! Ate ondoan, hor konpon.
(bis)**

Hormatxoriak, negu gorrian, ez du atsegin elurra
Zerua goibel, kabia hotza, ta janari gabe lurra.
Ai, maite nere bihotzak duen zure hotzaren beldurra !
Biontzat kabi, bat berotzeko, bilduko nuke egurra.

Enarak ez du behin egindako kabirik iñoiz aldatzen
Urtero beti, kabi aretan, umeak ditu bazkatzen.
Bainan zu, Antton enara txarra, zaitut neretzat bilatzen ;
Jai bakoitzean, nexka berria, ikusten zaitut maitatzen.



ARBOLĀ GĀINEĀN

(Beñat Sarasola ; Pier Pol Berzaitz ; GUK)

Arbola gainean xoria da kantatzen
 Kantatzen da eta bazterrak inarosten
 Inarrosi eta hostoa da erortzen
 Euskal bihotza da bilaiz egoiten
 Bilaizi ondoan han dira errabian
 Xiloka beltzian handik elki nahian
 Handik elki eta kantatzera abian
 Lagun zonbait bidian ikusiko agian... **La, la, la, la ...**

Goiz argi eder bat beti jeikitzen nunbait
 Nunbait jeiki eta zorionean zonbait
 Bizi hobeago denek dukete gogo
 Bainan bakarrik ezin egin asmo.
 Haur baten sortzeko sofritze beharrezko
 Bizi hobetzeko legeen bihurtzeko
 Nor da abiatzen ? lagun zonbaiten biltzen
 Herriaren salbatzen herioari kentzen... **La, la, la, la ...**

Gaur Euskal Herrian zuhaina da landatzen
 Landatzen da eta gero fruitu ekartzen
 fruitu ekar eta auzoa da kexatzen
 Iraultzalaria madarikatzen...
 Jar giten ildoan igeri izerdian
 Izerdian eta lepo zainak hegian
 Besoiez eta botzez, hortzez eta haginez
 Lagun bat zorionez ikusiko dugunez... **La, la, la, la ...**

ARDIAK LERRO LERRO*(Manex Pagola)*

Ardiak, lerro lerro, mendi maldan doatzi,
haize firfira batek deituz gorago beti ;
ibar zola erreketan, denak lotan sartzen dira.
Zoin amultsua zautan gaua jausten mendira !

Egunaz ixil bazen, gauaz pizten mendia !
Belar punta bakoitzat naisai dakar bizia.
Gaztain ondotan, kukuak joiten dauku soinua,
eta izarrekilan bestan degu zerua !

Orroituko naiz beti Aradoiko bazterrez,
horrara so gelditu bainaiz, maiz, bi begiez.
Bainan, orai, ezin dut zangorik hor finkatu,
bizi bihurri hunek bainau hortik urrundu.



ARDO XURIA*(Alexandre Bordagaray ; Pil Pil)*

Kolpü bat edan, beste bat edan
Gure gizona trenpian. (bis)

Ezin xüti, ezin ibil, ezin ezagün lagüna
Ardo xuriak ezartzen dizü
Planta txarrian gizona

Etxerakuan, ülün beltzian,
Dena trebeska bidian. (bis)

Etxeko bortan nurbait bada han,
Erratza beitü eskian. (bis)

Senar tristia, mozkorzalia,
Zertako dük emaztia ? (bis)

Etxekandere, begi ñabarra,
Ez zitela otoi kexa ! (bis)

Berriz artino adixkidiak,
Gauden zabalik begiak ! (bis)

ARRANTZALEAK

(Josef Sarasola; Babi Iraçabal)

Gu gira gu Eskual kantari tropa bat
izendatu arrantzaleak.
Maite dugu, eskual kantua
eta arnoa gorria.

**Arrantzaleak gire bai Donibandarrak
itsasoa da, gure ama.
Ziburutarrak gire bai mariñel seme,
guk itsasoa dugu maite.**

Gure arbasoak joan ziren bezala
behar dugu abiatu.
Bainan aldiz, ez arrantzarat,
egun behar dugu kantatu.

Etorri gira zuek alegeratzerat,
bakearen ekartzerat.
Denek betan, kanta dezagun,
ez gira gu bate ilun.



ARROSAKO ZOLAN

(Aitor Renteria "Txato"; Peio Agorridi)

Arrosako zolan, kantu zirimolan,
nahiz eta telebixtan ez gaituzten modan.

Euskararen gara, lokarri azkarra,
gau ilun honetako gure artizarra.

**Zazpiehun langilez, sutsu ta ekilez,
oraina ta geroa ez ditaizke berez.**

**Kontzertu honen bidez, musika ez tiez,
euskal izen ta izana, betikotz bat bitez. (bis)**

Koka ta hanburgesa, euskaldun baldresa
gustua galtzea ere zer dugun errega !

Kendu nahi digute, bihotz ta bertute.

Izaki klonikoak egin nahi gaituzte.

**Jo dezagun bada, goraki aldaba
Multinazional hoi en herria ez gara.**

**Bretoi ta Kortzikar, Kanak Okzitandar
Nor bedera izaiteko har dezagun indar. (bis)**

Munduko herrien ta irrati libre en
bilgune goxoa guk dugu urtero hemen.

Uhainen ildoan, asmoak geroan

Elkarren ezagutza daukagu gogoan.

**Munduko erronkak, herrien borrokkak,
Bildu gara hausteko zapalkuntzen sokak.**

**Dantza ta irria, kantuz ilargia,
Gau hontan zorientsu da Euskal Herria. (bis)**

ASKATASUNERĀ*(Jean-Marc et Mathieu Camurati L'ARCUSGI)*

Quale si ? Eskualduna naiz
 D'induve si ? Mendiko gizon naiz
 U to paese, cumu si chjama ?
 EUSKADI ene herria da

Nor zara ? Eiu so Corsu
 Nungoa zara ? Vengu d'un paisolu
 Zein da zure herriaren izena ?
 U mo paese ghje CORSICA

Simu fratelli anaiak gara
Circhemu a strada askatasunera

U populu corsu campa di stonde amare
 D'ii nostr'antenati a lingua si more
 L'usu nustrale di campà
 Senza rivolta smariscerà

Baita nere herrian
 Bainan euskara beti bizi da
 Eskualdunak izan nahi dugu
 Presoak etxean nahi ditugu

Simu fratelli...

Ghje ora ava tutt'inseme
 Per noi di custrui l'avvene
 E di lottà senza piantà
 Sin'à l'alba di a liberta

Jeiki jeiki denak etxean
 Orain ibili gara bidean
 Haurrek gurekin herriarentzat
 Eskuz esku askatusunera
Simu fratelli... (bi aldiz)

ATHARRATZEKO GAZTELUKO KANTUA

(herrikoia)

Ozaze Jaurgainian bi zitroin doratü
 Atharratzeko Jaunak bata dü galdatü ;
 Üken dü arrapostü eztirela huntü,
 Huntürük direnian batto ükenen dü.

Portaliala juan zite, ahizpa maitia,
 Ingoiti horra düzü Atharratzeko Jauna,
 Otoi erran izozü ni eri nizala,
 Zazpi egün hoietan ohian nizala.

Klara, zuaza orai salako leihora,
 Ipar-ala hegoa denez jakitera.
Iparra balinbada goraintzi Salari,
Ene korpitzaren xerka jin dadila sarri. (bis)

Ama, joanen gira oro elkarrekin,
 Etxerat jinen zira xangri handirekin,
Bihotza kargatürük, begiak bustirik,
Eta zure alaba tunban ehortzirik. (bis)

Ama, saldü naizü biga bat bezala,
 Bai eta desterratü, oi Espainiara,
Aita bizi üken banü, ama, zü bezala
Enündüzün ezküdüren Atharratzeko salala. (bis)

ATHENRI-KO ZELAIAK*(Irlandakoa, Pete St-John)*

Kartzela leihotik neska bat entzun dut nik oihuka
 Mikel haizatu dute herritik
 Artoa ebatsirik doluan barna sarturik
 Ur artean beha dago kartzela

**Urrundu dire zelaiak
 Xoriak hegal kolpez ere bai
 Amodioa hegal pean
 Kantatuz gure ametsak
 Bakartasun handian gelditzen naiz**

Kartzela leihotik gazte bat entzun dut nik oihuka
 Othoi ez izan beldur andrea
 Goseak oldarturik hemen naiz apaldurik
 Orai haurra haz dezazu bakarrik

Itsaso hegitik azken izarra etzaten da
 Zeruak estalirik untzia berekin
 Maitea egin othoitz ta atxik itxaropena
 Bakartasun handian gelditzen naiz

**Low lie the fields of Athenry
 where once we watched the small free birds fly
 Our love was on the wing
 We had dreams and songs to sing
 It's so lonely round the fields of Athenry**

AZKEN DANTZA HAU

(*Manex Pagola*)

Azken, dantza hau,
 maitia, zurekin...
 Nahi zinduzket
 ereman nerekin...
 Baina, gaurko xedia
 ezin daike betia !...
 Badakit, nik ere,
 bihar dela joaitia !...

Bego pena hau !
Itzuliren naiz
Bai ! Berriz
Euskal Herrirat !
Bego urte hau !
Etorriko naiz
betikotz zure ondorat !

Azken dantza hau,
 ez da sekulako...
 Zin egina dut,
 zin egin betiko,
 hemen, gure lurrean
 bizi behar dudala !
 Hori ez bada,
 hil hotz jar nadila !...

BĀDIRĀ HIRU ĀSTE*(Mikel Urdangarin)*

Iskin hontatik idazten dizut
 Azken aldian bezala
 Egia da bai sasoi honetan
 Hotza egiten duela
Neska gazte bat ezagutu dut
Hiru aste badirela
Esango nuke bere begiek
Erraz sorgindu nautela (bis)

Azken bidai hau ez duzu izan
 Etxe ondotik ihesa
 Nigandik hurrun aurkitu arren
 Hara itzultzeko ametsa
Zuekin beti oroitzen banaiz
Ahaztu naizenik ez pentsa
Sentimenduak esaten baina
Ez da hain gauza erreza (bis)

Orain goizean goizik hartzen dut
 Mendebalderako tren
 Harrizko zoru ahaztuetan
 Biderik eta zaharrena
Bizitzak sarri erakusten du
Badena eta ez dena
Iñoiz latz hartu banindu ere
Gaur gozo hartu nauena (bis)

Lantzean baina, egun luzeetan
 Bihotza egoten da triste
 Agindutako promesa hura
 Ezin kunplitu nezake
"Loriak udan" kantatzen baitut
Iñoiz gutxitan ez uste
Letrak ez ditut oraindik ahaztu
Akordatzen naiz hainbeste (bis)

BĀGĀRE*(Bitoriano Gandiaga)*

Arabán bagare
Gipuzkun bagera
Xiberun bagire ta
Bizkaian bagara (bis)
Baita ere, Lapurdi ta Nafarra.

Guztiok gara eskualdun
 guztiok anaiak gara.
 Nahiz eta hitz ezberdiñez
 Bat bera dugu hizkera.
 (bis)

Arabán bagare... (bis)
Baita ere, Lapurdi ta Nafarra.

Herri bat dugu osatzen
 eta gure zabarkeriz
 ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera,
 bagire, bagara,
 Euskara azkartzeko
 oraintxe dugu aukera.

Bagare, bagera,
 bagire, bagara,
 Euskadi askatzeko
 oraintxe dugu aukera.

Arabán bagare... (bis)
Baita ere, Lapurdi ta Nafarra.

BAKE MINA*(Irlande; Peio Ospital)*

Gizadiak maite-mina,
 Izadiak arreta-mina,
 Etorkinak herri-mina,
 Herri hunek bake-mina.

Laborari ta langile,
 Sinestedun ta bilatzaile,
 Bidez-bide, kalez-kale,
 Izan gaiten bakegile.

Zatiketak etsipena,
 Elkarketak itxaropena,
 Gorrotoak pairamena,
 Barkarmenak askapena.

Solasbide, elkarbide,
 Maitabide ta askabide,
 Zuzenbide, bakebide,
 Oro dire zorionbide.

Gizadiak maite-mina,
 Izadiak arreta-mina,
 Etorkinak herri-mina,
 Herri hunek bake-mina

Je voulais planter un oranger
 là où la chanson n'en verra jamais
 Il a fleuri et il a donné
 Les fruits sucrés de la liberté



BĀLDORBĀ*(Juan Antonio Urbeltz ; Benito Lertxundi)*

Ezkil gabeko elizen
 eremu emankorra,
 giza murzuriko zure ardientzat.

**Oi Baldorba ! oi Baldorba !
 eguzki eta haize idor,
 mahats-ardo ibai, galburuarena.**

Lur gorri, harri landu,
 mailu eta xixelaren kantu,
 kitarrazko alakiketan,
 Armeniako kanun, ahots urratuan.

**Oi Baldorba ! oi Baldorba !
 esazu nor zen bidetik
 baztertu zintuen madarikatua.**

Zure irriño romanikoa
 erdi izoztu eta leloturik
 utzi zuen madarikatuaren
 izena nahi dut, izena nahi dut.

Oi Baldorba ! oi Baldorba ! Esazu...

Oi Baldorba, zutaz oroit
 eta zuri nagozu, zuri nagozu.
 Kantu bat laburra da eta pentsa zuk,
 esaten ez dizudan hartaz.

Oi Baldorba ! oi Baldorba ! Esazu...

BÆLE IHIZI*(Jon Cazenave; Otxalde)*

Ni itsas xoria banitz / Iparreko izotz lurretarat
 Joan nintaike hegaldaka / Bale itsu gizenen ondotik
 Itsasoa harro dago / Haizeak oro tzarrear
 Eta gu ezin kontsola / Etxe goxoa gogoan harturik

Zoin asto izan behar den / Hala guziz miserian bizi
 Untzirat iragaiteko / Bale bakartiaren hiltzaile
 Sos poxika baten gatik / Zonbat arriskurik ez den
 Ur untzia uzkeilirik / Buztan hasarretuak leherturik

Lana gustokoa zaio / Arrantzale gai den gazteari
 Bainan ikaretan dago / Bale basa hurbiltzen denean
 Lot lanari, erna gaiten / Dio kapitaina jaunak
 Mariñela eri dago / Gorputz animak errotik daldaran

Borroka hasten denean / Uhain zoroak jauzian gora
 Aberea zaurituta / Odol basa zurrutan dario
 Oligo hexur paflea / Sos guttirekin sanitzat
 Moltza arin itzultzen da / Gaztea Ziburuko tabernarat.

BĀRĀTZE BĀT
(Pier-Pol Berzaitz)

Hau da egün eijerra
 mila xoriek kanta
 ziauri ene erregina
 besoak zuri ditzüt para.

**Baratze bat nahi deizüt egin
 amets segretüenekilan
 liliak egün jauntzi ederrenetan
 mila kolorez dantzan bihotzetan.**

Gaü beltz ta sakonetik
 elkitzen nüzü hoztürrik
 bihotza hain tristerik
 zütaz hainen berantetsitürik.

Karrosa bat hor dügü
 kanpoan gure aidürü
 ez gal haboro denbora
 hiskor beitago amodioa.

Maitarzün berriari
 ilargiak dü argi
 emanen deio aski
 gük elkar maita dezagün beti.

BĀTĀSUNĀ

(Telesforo de Monzon; Pantxoa Carrère; Peio Ospital)

Aupa gizona jeiki mutil !
 Atzar emazte ta neskatil !
 Borrokarako dei egiñaz irrintzi bat dabil !
 Euskal Herria diagu zai,
 Presoak eta hilak ere bai !
 Abertzale izan ezkeru gaur,
 Gauden denok anai !

Borrokari luza zaidak eskua !
 Huna hemen nerea zabalik !
 Euskaldunok banan banan hiltzea,
 Otso beltzak ez dik beste nahirik !
 Euskadiren alde loturik bagare,
 Goaz borrokara nagusituko bai gare
 Gerokoak geroko utzi !
 Gaur Herriak zioz nahi diat bizi !

Otso beltza gauaren gauaz heldu,
 Artzainak zebiltzala kalakan...
 Goizean goiz, odolez gorrituak,
 Hamaik'ardi hilak belarditan...
 Artzain kalakari, atsoak iduri,
 Har makila eskuan eta lotu etsaiari !
 Anaien aurka ez habila !
 Otso beltzarentzat atxik makila !

Agur, agur ! Andere Askatasuna !
 Agur, agur biharko Euskadi !
 "Iguzkitan dantzatuko gaituzu"
 Errana diot maiteñoari !
 Besoak loturik, ez dugu pestarik,
 Nola dantzatuko biok belaunikaturik ?
 Lehenik urratu gatea,
 Gero libro izanen dantz'egitea !

BATTITTA FETES DE BAYONNE

(René Borda)

Où vas tu brave Battitte de ce pas tout guilleret ?
 En bandoulière ta guite rebondie de vin clairet
 Béret noir, chemise blanche pantalon bien repassé
 Par ce beau iour de dimanche tu parais bien décidé
 Battitta, sois sympa dis-nous où tu vas com'ça.

**Je vais aux fêtes de Bayonne
 Chanter et danser, rire et m'amuser
 A travers ces rues qui résonnent
 De cris de chansons et de flonflons.**

Il va aux fêtes de Bayonne
 Chanter et danser, rire et s'amuser
 A travers ces rues qui résonnent
 De cris de chansons et de flonflons

**On a souvent chanté les charmes de Bayonne
 Cathédrale élancée, remparts majestueux
 Filles au regard vif, gracieuses et mignonnes
 Confluent Nive-Adour, aux flots tumultueux.**

Pourtant, ce qui nous enchante
 Et nous ramène tous les ans en cette ville riante
 C'est encore bien plus séduisant :

**Ce sont les férias où toute la ieunesse
 Du nord et du midi, de toute parts accourt
 Remplissant la cité de joie et d'allégresse
 Ce Bayonne est si beau qu'on y revient toujours**

D'ou viens-tu brave Battitte tu as perdu ton béret
 Elle est bien flasque ta guite, tu n'as plus de vin clairet
 Ton pantalon, ta chemise sont sales et tout tachés,
 Ta figure est toute grise, tu parais bien éméché.

Batitta, qu'est-ce que tu as ?

Dis nous d'où tu viens com'ça...

**Je viens des fêtes de Bayonne,
 Où pendant six jours, la nuit et le jour
 Avec des milliers de personnes
 J'ai chanté, dansé, M'suis amusé !**

BEGIĀK FĀRREZ FĀRREZ*(herrikoia)*

Begiak farrez farrez, bihotza nigarrez (bis)
 Halatxet joaiten, nintzan maitia, zuganik dolorez, Ai ai ai
 Halatxet joaiten, nintzan maitia, zuganik dolorez.

La, Lalalalala...

Txoriñoa kaiolan, egoiten da triste (bis)
 Ni ere ez naiz, kontsolaturen, zu ikusi arte, Ai ai ai
 Ni ere ez naiz, kontsolaturen, zu ikusi arte.

La, Lalalalala...

Nere maite pollita, zu non zira bizi (bis)
 Joan den aspaldi, ene maitia, ez zaitut ikusi, Ai ai ai
 Joan den aspaldi, ene maitia, ez zaitut ikusi.

La, Lalalalala...

Arrosarikan ez da, arantzerik gabe (bis)
 Ez eta ere, amodiorik, penarikan gabe, Ai ai ai...
 Ez eta ere, amodiorik, penarikan gabe.

La, Lalalalala...**BOGĀ BOGĀ***(herrikoia)*

Boga, boga, mariñela, mariñela !
 Joan behar dugu, urrutira, urrutira
 Bai indietara, bai Indietara. (bis)

Ez det, ez det, ez det nik ikusiko
 Zure plai ederra, plai ederra.
 Agur, agur, agur, Ondarroako
 Itsaso bazterra. (bis)
 Mariñela! Boga! Mariñela !

EGUN DA SANTI MAMIÑA
(Mikel Laboa)

**Egun da Santi Mamiña
 benetan egun samiña.
 Goiko zeruan
 gorde dezala
 luzaro neure arima**

Esaten dizut egia, hau ez da usategia ;
 erroi artean izan nitzaden, benetan ausartegia.

Egun da Santi Mamiña...

Itsas aldean izarra, hari begira lizarra ;
 euskara salbo ikusi arte, ez dut kenduko bizarra.

Egun da Santi Mamiña...

Kantatu zuen oilarrak, argitzen dira belarrak ;
 Ageda gure martiriari, moztu zizkaten bularrak.

Egun da Santi Mamiña...

Bularrak moztu zizkaten eta Euskalerriak diotsa,
 solomu luze dultzerik gabe eman zaidazu bihotza.

Egun da Santi Mamiña...

Eman zaidazu bihotza eta ken berriz nahigabeak.
 Esan noiz garen izanen gure, etorkizunen jabeak.

EIA EIA
(*Herrikoia*)

Eia, eia, eia, eia
norbait kanpoan ote da ? (bis)

Langileak, langileak, langileak ote dira ?
Langileak baldin badira,
barnera sar ditezela. (bis)

Nagusiak, nagusiak, nagusiak ote dira ?
Nagusiak baldin badira,
kanpoan egon ditela. (bis)

ETXAHUN LRURI
(*Hitzak Roger Idiart ; Airza Jean Etxart*)

Txülüla joile, pilotari,
Jauzi emaile, koblakari
Artetan ere laborari
Usü ametsetan ari
Horra nur izan ziren, Etxahun lruri :
Gano handiko poeta eta zuiñen maithagarri !

Etxahun lruri, Xiberoko lilia,
Maidalenako maxelatik
Hegalthatü txori khantaria, (bis)

Zük düzü arraphiztü
Jei zaharren leiñhüria
Ezinago maithatürik
Üskal Herria (bis)

Üskaldün hanitx beno lehen
Üskaltzale agertü zinen,
Zure denboran ari beitzen
Xiberuko jeia galtzen.
Ordian zinen hasi bazterren harrotzen
Bekhan dizügü ikhusi, txori bat haiñ gora heltzen.

EKI EDER*(Beñat Sarasola; Pter Pol Bertzaitz; GUK)*

Udazkenian mendiak,
 urtxoen eho tokiak,
 sare ta ihizlariak
 alde guzitan gordeak
 Berdin ditugu etsaiak
 gordagian jarriak,
 Gure seme ta alaben...
 Oi ebasliak !

**Eki eder sutan bero, eskualdun bihotzak oro
Gudukari diten gero, bilaka gau egunero. (bis)**

Su pindarraren indarra
 duelarik sortzen su garra,
 Preso ezarri gatia
 nola den amorratua
 Berdin dira Eskualdunak
 gizonik hoberenak,
 Bainan agertzen ximixta
 xixtatu eta.

Bururatu da guretzat
 ilusionen denbora,
 Jaun haundi bat Parisetik
 jinen zela salbatzera !
 Nunbaiteko zeruetan
 baldin bada Jainkorik,
 Guk ez dugu sinetsiko
 nagusi denik !



EN EL POZO MARIÁ LUISÁ*(Anonyme des Asturies)***En el pozo Maria Luisa trala la la ... (bis)**

Murieron cuatro mineros mira,

Mira Maruxiña , mira

¡ Mira como vengo yo ! (bis)

Santa Bárbara bendita, trala la la ... (bis)

patrona de los mineros mira

Mira Maruxiña, mira

mira como vengo yo. (bis)

Traigo la camisa roja trala la la ... (bis)

De sangre de un compañero mira

Mira Maruxiña, mira

¡ Mira como vengo yo ! (bis)

Traigo la cabeza rota trala la la ... (bis)

Que me la rompio un barreno mira

Mira Maruxiña, mira

¡ Mira como vengo yo ! (bis)

Traigo la garganta roja trala la la ... (bis)

De gritar por lo que es nuestro mira

Mira Maruxiña, mira

¡ Mira como vengo yo ! (bis)

Mañana son los entierros, trala la la ... (bis)

De esos pobres compañeros mira

Mira Maruxiña, mira

¡ Mira como vengo yo ! (bis)

Eperrak badititzü bere bi hegalak
Bai eta бүрүн gainin kokarda ejer bat
Zük ere balinbazünü gaztetarsün ejer bat
Neskatilen gogatzeko bilo holli pollit bat. (bis)

Amorosak behar lüke izan lotsa gabe
Gaiaz ebiltia ez üken herabe
Egünaz ebiltia desohore leike
Txoriak ere oro haier so dirade. (bis)

Ebili izan nüzü gaiaz eta beti
Eia ! atzamanen nianez lili ejer hori.
Azkenian atzaman düt oi ! bena tristeki
Lümarik ejerrena beitzαιο erori. (bis)

Zure aitak zer lüke eni erraiteko
Ala enitzaio aski aren ofizioko
Ala zü soberaxe zitzaio enetako
Printzerik ez ahal da orai zuenganako

ESKUALDUNA NAIZ ETA
(*Gexan Lantziri; Beñat Sarasola*)

Eskualduna naiz eta Euskadi dut maite.
Hor'gatik kartzelara eremanen naute. (bis)

Makilez jo nautenak elizan bai dirade,
Nere oinaze minen eskaintzen ba ote ? (bis)

Tiroz hilen naute, errana bai dautate,
Eta gauetan lurrez estaliko naute. (bis)

Kartzela leihotik izar bat da ageri,
Hura biziko deno, Euskadi da biziko. (bis)

Basauri espetxean, zilo bat da ageri
Handik atera dira hamar bat gudari.



EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

(Xabier Amuriza ; Oskorri)

Euskal Herrian euskaraz
 nahi dugu hitz eta jolas
 lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz,
 bada garaia noizbait dezagun
 guda hori gal edo irabaz.
 Zabal bideak eta aireak
 gure hizkuntzak har dezan arnas,
 bada garaia noizbait dezagun
 guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara
 hitz egiterik ez bada
 bota dezagun demokrazia zerri askara
 geure arima hiltzen uzteko
 bezain odolgalduak ez gara.
 Hizkuntza gabe esaidazue
 nola irtengo naizen plazara,
 geure arima hiltzen uzteko
 bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna
 irabazteko eguna
 pazientzia ere aurretik behar duguna,
 ez al dakizu euskara dela
 euskaldun egiten gaituena ?
 Zer Euskal Herri litzake
 bere hizkuntza ere galtzen duena.
 Ez al dakizu euskara dela
 euskaldun egiten gaituena ?

EUSKAL ROCK&ROLL

(Niko Etchart)

Izan gira Euskal Herrin Rock&rolling (ter)

Gaia heldü denin
Adiskikidiekin
Juiten giela bestaka (ter)


Izan gira Euskal Herrin Rock&rolling (ter)

Bal-en urhentzin
Ene maitea
Eneki jin zite "au Coucou des bois" (ter)

Izan gira Euskal Herrin Rock&rolling (ter)

Zü eta ni
Biak goxoki
Dantzan dantzan rock&rolling (ter)

Izan gira Euskal Herrin Rock&rolling (ter)



EUSKOTARRAK*(Beñat Sarasola; Pier-Pol Berzaitz; GUK)*

**Euskotarrak gira
Euskadi da gure aberria
Euskotarrak gira
Askatu ipar aldia.**

Eskualdun izaitea
Ez da hautatzen bozkatzez
Eskualdun izaitea
Gure baitan dugu sortzez.

Nork dauka eskubide
Biziaren ixiltzeko
Nork dauka eskubide
Hil nahi dugun galdatzeko.

Nor da ba aski Jainko
Euskara ezeztatzeko
Nor da ba aski Jainko
Bai batekin salbatzeko.

BAT BI HIRU LAU

**Bat bi huru lau, bortz sei zazpi
Arrantzaleek dute denek irabazi bandera**

Euskal herriko bandera
Euskal herriko bandera
Euskal herriko bandera
Xuri gorri ta berdea (bis)

Bat bi hiru lau....

EZ ZĀITEZ JOĀN ORĀINDIK (Oskorri)

**Ez zaitez, ez zaitez, ez zaitez joan oraindik.
Ez zaitez, ez zaitez, ez zaitez urrun nigandik.**

Baditut zuretzat gordeak bihotz hautsiaren zokoan
irrien negarren sortzak, milla bat hor dago jokuan.

Baditut zuretzako hemen abenduko euri uharrak,
haize hegoak duen kemen hura ebasteko bularrak.

**Ez zaitez, ez zaitez, ez zaitez joan oraindik.
Ez zaitez, ez zaitez, ez zaitez urrun nigandik.**

Baditut zuretzat lurrean atzeman artoen bizarrak
eta gauaren beldurrean klixkan ari diren izarrak.
Baditut zuretzat emanak sola zintzoetan urratsak.
ibai gardenetan edanak maitasunak utzi ur hatsak.

**Ez zaitez, ez zaitez, ez zaitez joan oraindik.
Ez zaitez, ez zaitez, ez zaitez urrun nigandik.**

Baditut zuretzat bilduak mendietan ardi hezurak,
herri baldarrak ixilduak dituen egien gezurak.
Ez duzu sufritu nahi hor uztailak hitz eman kaldetan :
halatan zaude muturik gor nere bi negarren maldetan.

Eta nik ez dakit nolatan behar dudan zurekin juan ;
dudarikan gabe halatan betiko huts hori goguan.

**Ez zaitez, ez zaitez, ez zaitez joan oraindik.
Ez zaitez, ez zaitez, ez zaitez urrun nigandik. (bis)**

FURRĀ FURRĀ
(Oskorri)

**Furra, furra, fandangoa,
hortxe duzu fandangoa geure gustukoa. (Bis)**

Gaur goizean jeiki naiz / suerte onean,
tanke bat topatu dut / neure kafesnean ;
ez dakit zer daukagun / bake ala gerra
bainan nik badaezpadan / egin dut puzkerra.

Furra furra...

Zerbait egitekotan/ zuzen eta artez
zorri bat garbitu dut/ ur pistola batez,
orain galdurik nago/beldurrez beteta
muniziorik gabe/ gelditu naiz eta.

Furra furra...

Neure arma bakarra / dut akordeoia,
hauspoari eraginez / dirudi leoia ;
eskua jaten badit / on egin dezaion
Cervantsei holakorik / gertatu zitzaien.

Furra furra...

Eta orain banoa / berriro ohera,
bila ez badatozkit / lolo egitera ;
bihar ikusiko da / zer dagoen berri,
jakintsuenak ere / ezin du igerri.

Furra furra...

GALDETZEN

(Jokin Urain; Patxi Saiz)

Gauari nahi nioke galdetu zergaitik ez dituen
Ene penak egunaren argia bezala aienatzen


Izarrei nahi nieke galdetu zergaitik ez duten
Ene bihotza gauaren iluna bezala alaitzen

Haizeari nahi nioke galdetu zergaitik maitearen
Laztanak pago hosto igarrak bezala ekartzen.

Euriari nahi nioke galdetu zergaitik ez duen
Ene egarria zelai lehorrarena bezala asetzen

**Etsaiari nahi nioke galdetu zergaitik ez duen
Herriaren garraisia indarkeri ankerraren
Ordez aditu nahi. (bis)**

○○○○○○ ○○○○ ○○○○



GOGOAREN BAITAN

(John Hiatt; Andde Duhalde)

Erabaki nuen tinko 'ta fermuki
 Ez zitzaidala gertatuko
 Maitasun saretan ez nintzela berriz
 Ustegabeen eroriko.

Bi begi izpitsu irrifar ezti bat
 Izan dira nere galtzaile
 Geroztik hor nabil arantzetan dantzan
 Ezinezko amets sortzaile

**Zu hor zaude, dantzan jautzitan
 Zer debru, bada,
 pasatzen zait gogoaren baitan. (bis)**

Urrezko txanpon bat eman gogo nuke
 Sorgin bat bilaka banedi,
 Ezina egikor aldatzeko aina
 Gezurra bihurtzeko egi.

Zer den ona edo zer ote den txarra
 Jakin beharko nukelarik
 Sumendi gainean erretzen ari naiz
 Ba al dago irtenbiderik.

Zu hor zaude, ... (bis)

Geroak zer dakar ? Ez dut pentsatu nahi
 Uneak nahi ditut bizi
 Lau egun dira 'ta bi omen lainotsu
 Galtzera ez ditut nahi utzi.

Hitzaren jokoan, itxura emanez
 Gorde nahiko nuke dena
 Biluzia nauzu izan zarelako
 Egoera hunen sormena.

Zu hor zaude, ... (ter)

oooo

GOIZIÄN GOIZ JEIKIRIK

(Jose Angel Martin Zarko)

Goizian goiz jeikirik, argia gaberik,
urera joan ninduzun pegarra harturik.

Tra lera, la, la, la.

Jaun xapeldun gazte bat jin zautan ondotik,
heia nahi nuenez urera lagunik.

Nik ez nuzela nahi urera lagunik,
aita beha zagola salako leihotik.

Aita beha zagola, ezetz errangatik,
pegarra joan zerautan besotik harturik.

Urera ginenian, biak buruz buru,
galdegin zautan ere : -"Zonbat urthe tutzu ?"

-"Hamasei... hamazazpi orain'ez konplitu
zurekin ezkontzeko gaztexegi nuzu.

Etixerat itzultzeko nik dutan beldurra,
ez jakin nola pentsa amari gezurra !"

-"Neskatxa, nahi duzu nik erakuts zuri
etxerat etortzean zer erran amari ?"

"Urzo xuri pollit bat, gabaz dabilana,
hark ura zikindurik, egotu naiz ama."

-"Dakigunaz gerotzik zer erran amari,
dugun pegarra pausa, gaitezen liberti."

GOIZIÄN ÄRGI HÄSTIÄN

(Etxahun)

Goizian argi hastian, ene leiho hegian,
Txori bat pausatzen da eta goratik hasten kantan.
Txori eijerra, hain alagera, entzütén haidanian
Ene bihotzeko trixtüra laster duak aidian. (bis)

Ene txoririk maitena, zertaz jin hiz ni gana ?
Iratzarazi nialarik ametsik eijerrena.
Jinik hain goizik, usté hiena baniala hanitx pena ?
Ez, ez ! habil konsolatzera malerusago dena. (bis)

GORÄ TÄ GORÄ BETI

(Gabriel. Aresti ; Oskorri)

Gora ta gora beti,
haik gora Lapurdi !
Euskerak bizi gaitu
eta bizi bedi. (bis)

Gorantza doa agudo kapitala
eta Lapurdi beti dago apala,
aldrebesturik dago mundu zitala,
konformatzen ez bagara
ze pekatu mortala !

Gurea ez da bizi-modu normala
lurra lantzeko haitzurra eta pala,
lanaren truke kobratzen erreala.
Benetan da miserable
Euskaldunon jornala.

GUK EUSKARAZ*(Gabriel aresti ; Jose Antonio Larrañaga-Urko)***Guk euskaraz, zuk zergatik ez ? (bis)**

Euskara putzu sakon eta ilun bat zen, (bis)

eta zuek denok ur gazi bat
atera zenuzten handik nekez. (bis)**Guk euskaraz, zuk zergatik ez ? (bis)**

Orain zuen birtutez, zuen indarrez, (bis)

euskara itsaso urdin eta zabal
bat izanen da eta guria da... (bis)**Guk euskaraz, zuk zergatik ez ? (ter)**

HĀURRĀK IKĀSĀZUE

(Herrikoia)

Haurrak ikasazue euskaraz mintzatzen
ongi pilotan eta oneski dantzatzen. (bis)

Aire tun txikitun, aire tun laire (ter)
Aire tun txikitun, aire tun laire... Ole !

Gure kantu zaharrak kontserba ditzagun ;
aire politagorik ez da sortu nihun. (bis)

Ez ahantz behin ere sorterri ederra
haren mendiak eta itsaso bazterra. (bis)

Bihotz leiala ere atxik aita-amari
eta nonbait goait dagoen gazte maiteari ! (bis)

HEGOĀK

(Juan Antonio Artze ; Mikel Laboa)

Hegoak ebaki banizkio
Neuria izango zen
Ez zuen aldegingo. (bis)



Bainan horrela,
Ez zen gehiago xoria izango. (bis)

Eta nik, xoria nuen maite.
Eta nik, eta nik, xoria nuen maite.

HERRIBEHERA

(Benito Lertxundi)


Herribehera, Herribehera,
zure landen zabalera
ortzi-muga den hartan mugatzen da.

Zure lur emankorretan
ixurtzen diren asmoak
gogotsu hartuko ahal ditu lur gozoak.

Zure gaztelu zaharrek
gorderik duten aintzina
hats tristetan mintzo da haren mina.

Horma zahar arraituetan
xoriak dira kantatzen
mendetako lo geldia salatzen.

Nafarra anaia zaharra
kondairaren lehen sustarra
bego higan arbasoen amets hura.



IKUSTEN DUZU GOIZEAN

(Jean-Baptiste Elizanburu)

Ikusten duzu goizean
argia hasten denean,
menditto baten gainean,
Etxe ttipitto aintzin xuri bat,
lau haitz ondoren erdian,
txakur txuri bat atean,
iturriño bat aldean
han bizi naiz ni bakean.

Nahiz ez den gaztelua,
maite dut nik sorlekua,
aiten aitek hautatua.
Etxetik kanpo zait iduritzen
nonbait naizela galdua.
Nola han bainaiz sortua,
han utziko dut mundua,
galtzen ez badut zentzua.

Ene alaba Kattalin
bere hamaika urtekin,
ongi doa amarekin.
Begiak ditu, amak bezala,
zeru-zola bezain urdin.
uste dut, denborarekin,
Oraingo itxurarekin
andre on bat dion egin.

ILARGIA*(Pako Aristi – Ken Zazpi)*

Esaiozu euriari
 berriz, ez jauzteko
 esan bakardadeari
 gaur ez etortzeko
 Nana..na.. nana... nanana... (bis)

Eusten nauen soka zara
 ta itotzen nauena
 ametsak sortu zizkidana
 galtzen dituen
 nana ,na, nana, nanana... (bis)

**Zuretzat ilargia lapurtuko nuke gauero
 eta zu itsu zaude bere argia ikusteko
 irrifarrez gero minez eragin didazu negarra
 nire sua itzali da, ez zara gaueko izar bakarra, ez zara !
 nanana... na...na... nana...nanana
 nana, na, nana, nanana...**

Esan sentitzen dudana
 ez dela egia
 une baten sinisteko
 ez garen guztia
 nana, na, nana, nanana... (bis)

INDARR HARTU*(Christian Etcheverria-Air amor d'Aussau)*

Lagunekin da zinez plazerra
 kantuetan delarik indarra
 Batzuetan bizirik sobera,
 gure gorputzean sortzen da dardara

**Kantua sortu denen artian,
 Indar hartu, indar eman (bis)**

Maite dugu kantua errotik,
 gure nahia : kantatzia gogotik !
 Elgarrekin egonen gu xutik,
 bizia guri soinez baduke goxotik

**Kantua sortu denen artian,
 Indar hartu, indar eman (bis)**

Norek daki noiz giren bahatzen,
 ezin geldi bat deno behatzen
 Sekulan ez gira eneatzen,
 gure beha dira mazteak asetzen

**Kantua sortu denen artian,
 Indar hartu, indar eman (bis)**

ITSASONTZI BÄTEN*(Kaxiano Iburguren)*

**Itsasontzi baten, Euskal Herririk kanpora
naramate eta ez dakit nora. (bis)**

Agur nere ama, laztan goxoari
agur nere maite, politari
ez egin negar, etorriko naiz
egunen baten, pozez kantari. (bis)

**Itsasontzi baten, Euskal Herririk kanpora
naramate eta ez dakit nora. (bis)**

Agur senideak agur lagunari
agur Euskal Herri osoari.
Ez egin negar etorriko naiz
egunen baten pozez kantari. (bis)

**Gora Euskal Herri, Gora Euskal Herri
Gora Euskal Herriari. (bis)**



ITURINGO AROTZA

(Herrikoa)

Ituringo arotza, Erramun Joakin,
haserre omen zaude zeren dugun jakin.
Santurik ez laiteke fidatu zurekin :
San Kritobal urtuta joaliak egin...

La la la...

Arotzak erran dio bere andreari :
- Urtu behar dinagu, ekarran santu hori !
- Gizona zertaz zoaz, bekatu da hori !
- Etzionagu erranen sekulan nihori.

La la la...

Ituringo garaile Ramuntxo Joakin
haserre omen zira zeren dudan jakin.
Konfesa zaitetz ongi erretorarekin :
ez dute zer fidatu Santuek zurekin !

La la la...

Kobrezko Santurikan inon bazarete,
egoten al zarete hemendik aparte ;
baldin arotz horiek jakiten badute,
joarien egiteko urtuko zaituzte !

La la la...

IXIL IXILIK DAGO (Herrikoia)

Ixil ixilik dago, kaia bazterrean
Untzi xuri pollit bat uraren gainean. (bis)

Goizek' ordu bietan esnatutzen gira
arrantzalearekin joaiteko urrutira. (bis)

Pasatzen nintzanean zure leihopetik
nigar heldu zitzaidan begi bietarik : (bis)

Zergatik, zergatik, zergatik, zergatik,
Zergatik nigar egin ?
Zeruan izarra dago **NUNDIK ?** Itsaso aldetik. (bis)

Bat, bat, bat
bazter ondoan ibili, bazter ondoan ibili,
Bi, bi, bi
ez naiz ondo ibili, ez naiz ondo ibili,
Hiru, hiru, hiru
golkoa bete diru, golkoa bete diru,
Lau, lau, lau
xardin eta bakalau.

Anteru txamarrotia, txingarren bigotia,
Haretzek derauka, preso tximinoia. (ter)

Hau dek, hau dek, hau dek umorea !
Kontsolatzeko, kontsolatzeko,
euskaldun jendea. (bis)

Kalean gora, kalean behera,
kalean gora zezena. La, la, la, la
Kalean gora, kalean behera,
kalean gora zezena !

Kalean gora, kalean behera (ter)
Kalean gora zezena. (bis)

IXILTASUNA
(*Pantxoia Challet ; Izarrak*)

Agur lagun iluna, jina nizu mintzatzerat
Amets bat jin zautat gogora
haziak utzi ditu ene loan
Amets hori ene baitan egonen da, betikotz
Ixiltasuna gabe

Ametsetan ibili naiz bide harriz batueta
Argi baten azpian geldituz, umeltasun ta hotza
sendituz
Dirdira batek begiak gogor hunki zauztan ilunpean
Ixiltasuna hunkiz

Ordian ikusi nintuen hamar mil jende bederen
Alegia eleketan ari kasu egin gabe erraner
hitzak sekulan ere kantatu gabe, hortako
Ixiltasunarengatik

Xangrea lotu bezala ixiltasuna hedatzen da
Entzun otoi denek ene hitzak, besoak altxatu zier buruz
Bainan hitzak urtzen dira segidan, ixuriz
Ixiltasunaren baitan

Otoitzka belaunikatuz jainkoa galdegiten zuten
Dirdira bat dener agertu zen izkiriatu hitzak erakutsiz

**Hor ziotela profetaren erranak apalik hedatuak
dira denetan
Ixiltasunari esker (bis)
Ixiltasunari esker**

JĀUN BĀRUĀK

(Herrikoia)

Jaun BaruaK aspaldin xederak hedatü zütin, (bis)
 Txori eijer bat hatzaman dizü Paubeko seroren komentin, (bis)
 Orain harekin biziren düzü
Aspaldian gogun beitzin. (bis)

Xedera baliz halako merkatietan saltzeko, (bis)
 Xiberuako aitunen semek eros litzazkie oro, (bis)
 Halako txori eijerto
Zunbaiten hatzamaiteko. (bis)

Igaran apirilaren bürrian, armadaren erdian, (bis)
 Züntüdan bihotzian, armak oro eskian ; (bis)
 Present espiritian,
Manka besuen artian. (bis)

Jauna maite banaizü erraiten düzün bezala, (bis)
 Kita ezazü, kita ezazü erregeren zerbütüa (bis)
 Eta maita herria,
üken dezadan plazera. (bis)

JEIKI JEIKI
(*Herrikoia*)

Jeiki jeiki etxeokak
Argia da Zabala (bis)

Itsasotik mintzatzen da
Zilharrezko tronpeta
Bai eta ere ikarutzen
Olandresen ibarra (bis)

Jeiki jeiki etxeokak
Argia da Zabala (bis)

Itsasotik hurbiltzen da
Untzi bat kargatua
Gaitezen denak mentura
Haren atakatzera (bis)

JOHN ZAHARRA
(*Mikel Markez*)

Etixerako ordua iritsi zaigu John Zaharra
Kanta zagun azkena alaitzeko gure bidea

Zenbat kanta, zenbat hitz / Lagunak lagun truke
Biharko ere zerbait / utzi beharko genuke

Gure emaztetxuak / lo hartuta leudeke
ai zer gau goxua / ezkonduta bagendeuke

Etzaitetz hasi orain / maitasunaren eske
ilargiaren lagun / zeruraino joan gintezke

JOSEBA ELOSEGI
(Eñaut Etxamendi)

Lotuz aire zaharrari
 Dugun kanta pertsu berri
 Joseba Elosegiri (ter)
 Gizon miresgarriari.

Ene haur eta ahaide
 Bai ta Eskualdun haurride
 Zonbat zaituztedan maite (ter)
 Nehoiz nehork ez dakike.

Adios mendi ederrak
 Oihan ta itsas bazterrak
 Adios Donostiarrak (ter)
 Jauntziren ditut su garrak.

Arras trixte da bizia
 Askatasunik gabia
 Herriarentzat hiltzia (ter)
 Nuen nik neure lehia.

Donostiako medikiak
 Erien sendatzaleak
 Utz otoi ene zauriak (ter)
 Dagoden orroitgarriak.

Ni hiltzen baniz huntarik
 Ez otoi egin nigarrik
 Ez baitut nigar beharrik (ter)
 Ez badut jarraikilerik.

KANTUZ

(Jose Mendiague)

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi
 kantuz igortzen ditut nik penak ihesi
 kantuz izan dudano zerbait irabazi
 kantuz gustura ditut guziak iretsi
 kantuz ez duta beraz hiltzea merezi ?

Kantuz iragan ditut gau eta egunak
 kantuz ekarri ditut griñak eta lanak
 kantuz biltzen nituen aldeko lagunak
 kantuz eman dauzkate, obra gabe, famak
 kantuz hartuko nauia zeruko Jaun onak.

Kantuz eginez geroz munduian sortzia
 kantuz egin behar dut ontsalaz hiltzia
 kantuz emaiten badaut Jainkoak grazia
 kantuz idekiko daut San Pierrek atia,
 kantuz egin dezadan zeruan sartzia.

Kantuz ehortz nezaten hiltzen naizenian
 kantuz ene lagunek harturik airian
 kantuz ariko dira ni lurrian sartzian
 kantu frango utziko diotet munduian
 kantuz egin dezaten nitaz oroitzian.



KINKIRI KUNKURU


(herrikoia)

Erran dut, erranen ta errango,
ez naiz ixilik egongo,
plaza huntako dama gazteak
ez dira monja sartuko.

**Ala kinkiri, ala kunkuru,
ala kinkiri kunkuru kanta, (bis)
gu bezalakoak dira, hola !**

Erran dut, erranen ta errango,
ez naiz ixilik egongo,
plaza huntako gizon gazteak
ez dira fraile sartuko.

Erran dut, erranen ta errango,
ez naiz ixilik egongo,
plaza huntako gazte guziak
ezkontzan dira sartuko.



KOLORE, KOLORE

(Mixel Ducau / Zaldibobo)

**Kolore, kolore ta gustu guziak
denontzat, denontzat ez dira berdinak. (Bis)**

Urdina...
zuk nahi duzu urdina
nik maiteago horia
bien artean berdea sortuko da
ezkerra, eskuina,
gibel edo aintzina
bakoitzak bere bidea
berarentzat onena!

**Kolore, kolore ta gustu guziak
denontzat, denontzat ez dira berdinak. (Bis)**

Amaia,
Jonekin maitemindua
zoritxarrez Arantxa da
Jonen amodioa, ze lastima !
alboan beti dauzkat
bai Olga eta bai Olatz
eta nik maitatzen dut Amaia
mundua gaizki egina da !



KONTRAPAS

(Bernat Etxepare (1545) ; Xabier Lete)

Garaziko herria benedikada dadila : (bis)
euskarari eman dio behar zuen tornua ! (bis)

Euskara, euskara jalgi hadi plazara ! (Bis)

Bertze jendek uste zuten ezin eskriba zaitezien (bis)
orain dute porogatu engainatu zirela ! (bis)

Euskara euskara jalgi hadi dantzara ! (bis)

Bertzeak oro izan dira bere goien gradora, (bis)
orai hura iganen da bertze ororen gainera (bis)

Euskara euskara jalgi hadi mundura ! (bis)

Oraindano egon bahiz inprimitu gaberik, (bis)
hi engoitik ebiliren mundu guzietarik. (bis)

Euskara euskara jalgi hadi kanpora ! (bis)

**Euskara, euskara
jalgi hadi plazara !
Euskara, euskara
jalgi hadi dantzara !
Euskara, euskara
habil mundu guzira**

LA CAMIONETA (Popular)

Mi papaito ha comprado
Una veloz camioneta
Que segun dice ha costado
Cuatrocientas mil pesetas
Tiene el motor muy potente
De unos dos mil megatones
Para espantar a la gente
Con tremendas explosiones

**Quita del medio que va pasar
La camioneta, la camioneta,
Quita del medio que va pasar
La camioneta de mi papa
Pa para para pa HU-U-U-U-U**

Dicen que tu no me quieres
Porque no tengo pesetas
Pero sin embargo tengo
Una linda camioneta
Tiene el motor muy potente
De unos dos mil megatones
Para espantar a la gente
Con tremendas explosiones



LĀNGILEK

(Beñat Sarasola; GUK TALDEA)

**Gosea iluna borrokaren sari
sagarra ondu da bainan ez da erori. (bis)**

Langilek elgarri ixilka egun on
iguzkia pizu da egun Bilbaon
jendea karriketan multxoka dago
langileak borrokan dirade hasiko... **Gosea**

Garbia baitzen neskatxaren gorputza
nork egin du haren zikintzeko hutsa
gizona xutik egonen dea hemen
bere zuzena baizikan ez du eskatzen... **Gosea**

Denboran ezpata luze bat omen zen
zintzur baterat ez errexi urbiltzen
langileak ez du itxaropen galdu
bihar bere semeak ekarriko ditu... **Gosea**



LĀGUN ETOR GUREKIN

(*Beñat Sarasola ; Pier Pol Berzaitz ; GUK TALDEA*)

Batez... mendi eta oihanetan, pentze eta alorretan
 Bizi nahi dugu gure etxetan
 Batez... laborarien auzia ezin da irabazia
 Nahi norbaitekin ta nor ez jakin.

Lagun etor gurekin, denek elkarrekin badugu zer egin
Gu ez gira lotsatzen, etsaia nun hasten han da gudukatzen
Gure odolez ta ontasunez, gure izaitzez dirade gosez
Elkartasunez erakuts hortzak, elkarri josiz buru gorputzak.

Biez... langile guzien mina, nagusientzat gaixtagina
 Senda daiteke gure indarrez,
 Biez... nun ez den ari gogorka, ezin da egin borroka
 Nahi norbaitekin ta nor ez jakin... **Lagun ...**

Hiruez... besten bizkar bizi dena, utzirik bestalde lana
 Mozten ahal dira hari hegalak
 Hiruez... diruaren lege latza, ezin da nihundik kasa
 Nahi norbaitekin ta nor ez jakin... **Lagun ...**

Lauetz... libertateko bidean, bide luze ta hertsian
 Tinka eta gogor elgar atxiki
 Lauetz... itotzen ari den haurra ezin da ekar bizira
 Nahi norbaitekin ta nor ez jakin... **Lagun ...**

Bostez... ardiz bezi den otsoa, barnea ustelzkoa
 Argi ikus nor den gure ondoan
 Bostez... barkua zuzen eraman haizeari gogor eman
 Nahi norbaitekin ta nor ez jakin... **Lagun ...**

LĀU TEILĀTU*(Juan Carlos Perez ITOIZ)*

Hemen gaude
 ta poztutzen naiz
 ta ziur zure aita ere bai ;
 ta zer ondo... zelan diju
 zure bufanda txuria.

**Lau teilatu gainian
 ilargia erdian eta zu
 goruntz begira,
 zure keia eskuetan
 putzara batekin... putz!
 Neregana etorriko da
 ta berriz izango gara
 zoriontsu...
 edozein herriko jaixetan.**

Goxo goxo
 kanta eginazu
 Benitoren Maria Solt.
 Negarrik ez,
 txuri zaude ta malkoak
 zure kolorea kentzen dute.

Felix, Felix bihar
 berriz izango gara
 txanpain apur batekin ;
 diru gabe baina
 izarrak gurekin daude,
 piano baten soinuz.

LEHENIK ADISKIDEAK

(Les copains d'abord)

Non, ce n'était pas le radeau / de la Méduse, ce bateau
 Qu'on se le dise au fond des ports, / dise au fond des ports
 Il naviguait en père peïnard / Sur la grand-mare des canards
 Et s'app'lait les Copains d'abord / Les Copains d'abord

«Ses fluctuat nec mergitur» / Ez ziren ez literatur
 Entzun zorte egileak / Bai egileak
 Bere patroi ta mutilak / Ez ziren faltsu, ustelak
 Baina zinezko lagunak / Adiskideak.

Ez ziren paregabeak, / Pollux, Castorren pareak,
 Sodom, Gomorrhen jendeak / Haien kideak
 Ez ziren hauta lagunak / Montaigne, La Boétie zinak
 Sabelak bete, beteak / Adiskideak.

Ez ziren aingeru ere / Ebanjeliorik gabe
 Elkartasun maitaleak / Bai maitaleak
 Haien litani bakarra / Xan, Pol bai eta Pierra
 Beren kredo, lehenik / Adiskideak.

Des bateaux j'en ai pris beaucoup
 Mais le seul qu'ait tenu le coup
 Qui n'ait jamais viré de bord / Mais viré de bord
 Naviguait en père peïnard / Sur la grand-mare des canards
 Et s'app'lait les Copains d'abord / Les Copains d'abord...

...La la la la ...

LES FETES DE MAULEON

(Etxahun)

Jusqu'au plus petit coin de Navarre
 De la Soule et même du Labourd
 On parle de Mauléon-Licharre
 Avec envie et beaucoup d'amour
 De Mauléon, de ses superbes fêtes
 Si vivantes et si pleines d'entrain
 De ses allées de Soule coquettes
 De son beau folklore souletin.

**Farandoles qui s'envolent
 Fandangos, feux de la Saint-Jean
 Jolies filles qui pétillent
 Dans les bras de leurs chers galants
 Cavalcades, sérénades,
 D'irrintzina et de chansons
 Nuit d'ivresse, d'allégresse,
 Tout ça c'est les fêtes de Mauléon.**

Venez donc un peu voir le programme
 Vous me direz s'il est vraiment beau
 Vous y trouverez messieurs mesdames
 L'éternelle course de cheveux
 De splendides parties de pelote
 Et un choix de danseurs souletins
 Fandango, danse du verre, gavotte
 Tout ça dans l'ambiance des bons copains

Ce soir c'est la cohue générale
 Du vieux fort au fin fond du plachot
 Faut voir un peu comment se trimbalent
 Nos Maritxu et nos Ramuntxo
 Les fougueux bergers de nos montagnes
 Et la jeunesse des environs
 Ont déserté ce soir la campagne
 Pour goûter aux fêtes de Mauléon.


LILI BĀT IKUSI DUT

(herrikoia)

Lili bat ikusi dut baratze batean,
Desiratzen bainuke nere sahetsean ;
Lorea ez du galtzen, udan ez neguan,
Haren parerik ez da bertze bat munduan ! (bis)

Deliberatu nuen gau batez joaita
Lili arraro haren eskura hartzera ;
Ez bainuen pentsatzen beiratzten zutela !...
Gau hartan uste nuen han galtzen nintzela ! (bis)

Etsenplu bat nahi dut eman guzieri,
Eta partikulazki jende gazteari :
Gauaz ibiltzen dena ez da zuhur ari ;
Ni begiraturen naiz, eskerrak Jaunari ! (bis)



L'IMMORTELA
(*Nadav*)

Sèi un país e ua flor (ter)
Que l'aperam la de l'amor (ter)

**Haut peiròt, vam caminar,
Vam caminar de cap tà l'immortela
Haut peiròt, vam caminar,
Vam caminar lo país vam cercar.**

Que'ns cau traucar tot los segàs (ter)
Tà ns'arrapar sonque las mans

Que'ns cau traucar tots los segàs (ter)
Tan's arrapar sonque las mans (ter).

Lhèu veiram pas jamei la fin (ter),
La libertat qu'ei lo camin (ter).

Après lo malh, un aute malh (ter)
Après la lutz, ua auta lutz (ter).

LORE POLLIT BÄTEN BILÄ
(Ander Gorospe Chucho Monge)

Lore polit baten bila herritik herrira noa,
 zurekin elkartu arte, bihotzeko andereñoa.
 Kuttun kuttun estaltzen du mendi gainean lainoak,
 bilatzen zaitudanean berdinak nere asmoak.

Mendi tartean haizea zirrika doan antzera,
 zure gorputza maitea nahi nuke zirrikatzea.
 Mendi gainean lainoak estaltzen duen antzera,
 egin nahi nuke berdina zurekin ene maitea.

Atsedean gabe lasterka egiten nago bidea,
 gidaria dut zure usaina dakarren haizea.
Mendilero ta zelai bazter guztiaren jabea,
haizea bezela nik izan nahi nuke zurea. (bis)
haizea bezela nik izan nahi nuke zurea.

LORETXOĀ

(Benito Lertxundi)

Mendian larrartean / aurkitzen da loretxo bat
 Aurrean umetxo bat / Loretxoari begira.
 Loreak esan nahi dio / "Umetxo aska nazazu,
 Jaio naiz libre izateko / Ta ez loturik egoiteko"

Umetxoak ikusirik / Lorea ezin bizirik
Arantzak kendu nahi dizkio / Bizi berri bat eman
Orduan izango baitu / Indarra eta kemena
Orduan emango baitu / Ugari bere fruitua. (bi aldiz)

O BELLĀ CIAO

(Anonyme)

Abertzalea / ni jaio nintzen
 O bella ciao/ bella ciao / bella ciao ciao ciao
 Abertzalea / ni jaio nintzen
 Ta abertzalea hilgo naiz.

Egun batean / goiz goizetikan
 O bella ciao/ bella ciao / bella ciao ciao ciao
 Egun batean / goiz goizetikan
 Etsaian aurka joan nintzen

Eta burrunka hiltzen banaute
 O bella ciao / bella ciao / bella ciao ciao ciao
 Eta burrunka hiltzen banaute
 Hartu zuk neure fusila ...

La la la la O bella ciao / bella ciao / bella ciao
ciao ciao....lala

MĀITĀSUN NORTĀSUN
(Xabier Amuriza ; Andde Duhalde)

Naizena senditu nahi dut / Senditzen dutana maite
 Maite dutana kantatuz / bi aldiz maite nezake
 Ezin dut deus egin kantu / benetan maitatu gabe
 Dena dut zinez kantatu / amodioa ere barne

Maitasunarena, iparra hegoa
Maitasunarena, hango hemengoa
Nortasunarena, ez dut banakoa
Soilik Euskal Herrikoa

Ez naiz hemengo ez hango / barka ezin badut jasan
 Ene bihotza iñongo / mugatzarrak molda dezan
 Osoa dut maiteago / zenbat hautsiago izan
 Aginterri ezin deno / behintzat herri bakar gisan

Kantatu eta maitatu / den dena ere ez noski
 Tamalez maizegi jardun / izan dut hortz eta guzti
 Izate geuk hautatua / mozten zaiguno bortizki
 Behar dut erremin hori / bihur dakidan abesti



MĀITEĀK GĀLDEGIN ZĀUTĀN
(Erramun Marticorena)

**Maiteak galdegin zautan,
 pollit nintzanez. (bis)**

Pollit, pollit nintzela bainan
 larrua beltz, larrua beltz !

**Maiteak galdegin zautan,
 premu nintzanez. (bis)**

Premu, premu nintzela bainan
 etxerik ez, etxerik ez !

**Maiteak galdegin zautan,
 moltsa banuenez. (bis)**

Moltsa, moltsa banuela bainan
 dirurik ez, dirurik ez !

**Maiteak galdegin zautan
 lanean nakienez. (bis)**

Lanean, lanean, nakiela bainan
 gogorik ez, gogorik ez !

**Gaixoa hil behar dugu
 gu biek gosez. (bis)**

Gosez, gosez ez naski bainan,
 elgar maitez, elgar maitez !

MARTXAN BAITEN LEHEN NOTAK

(Joxean Artze; Mikel Laboa)

Eguzkiak urtzen du goian
gailurretako elurra
uharka da jausten ibarrera
geldigaitza den oldarra

Gure baitan datza eguzkia
iluna eta izotza
urratu dezakeen argia
urtuko duen bihotza

Bihotza bezain bero zabalik
besoak eta eskuak
gorririk ikus dezagun egia
argiz beterik burua

**Batek gose diraueno
ez gara gu asetuko
bat inon loturik deno
ez gara libre izango.**

Bakoitzak urraturik berea
denon artean geurea
etengabe gabiltz zabaltzen
gizatasunari bidea

Batek gose...

Eguzkiak urtzen...

MÄTÄLÄS

(Paroles Beñat Goienetche (1661); Benito Lertxundi)

Dolü gabe, dolü gabe hiltzen niz,
Bizia Xiberuarendako emaiten baitüt.

Agian, agian, egün batez
Jeikiko dira egiazko Xiberutarrak, (bis)
Egiazko eskualdünak,
Tirano arrotzen ohiltzeko (ter)



MENDIĀN GORĀ HĀRITZĀ

(Xabier Amuriza ; Imanol)

Mendian gora haritza,
ahuntzak haitzean dabilta,
itsasoaren arimak dakar
ur gainean bitsa.

**Kantatu nahi dut bizitza, usteltzen ez bazait hitza
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa banintza. (bis)**

Euskal Herriko tristura,
soineko beltzen joscura,
txori negartiz bete da eta
umorez hustu da.

**Emaidazue freskura, ura eskutik eskura
izarren salda urdina edanda
bizi naiz gustura. (bis)**

Euskal Herriko poeta,
kanposantuko tronpeta,
hil-kanpaiari tiraka eta
hutsari kolpeka.

**Argitu ezak kopeta, penak heuretzat gordeta
goizero sortuz, bizitza ere
hortxe zegok eta. (bis)**

Mundua ez ba beti jai, iñoiz tristea ere bai
Bainan badira mila motibo, kantatzeko alai.

**Bestela datozen penai, ez diet surik bota nahi
Ni hiltzen naizen gauen behintzat
Egizue lo lasai. (bis)**

MON DIEU QUE J'EN SUIS À MON AISE
(Nadau La Piémontaise)

Mon Dieu que j'en suis à mon aise Quand ma mie est
auprès de moi, Tout doucement je la regarde, Et je lui
dis embrasse-moi

**Comment veux-tu que je t'embrasse, Tout le monde
dit mal de toi, On dit que tu pars pour l'armée,
Dans le Piémont servir le roi.**

Quand tu seras dans ces campagnes, Tu n'y penseras
plus à moi, Tu penseras aux Italiennes, Qui sont bien
plus belles que moi.

**Si fait, si fait, si fait ma belle, J'y penserai toujours à
toi, Je m'en ferai faire une image Toute à la
semblance de toi.**

Quand je serai à table boire, A tous mes amis je dirai :
Chers camarades, venez voir, Celle que mon cœur a
tant aimée.

**Je l'ai aimée, je l'aime encore, Je l'aimerai tant que
je vivrai, Je l'aimerai quand j'serai mort, Si c'est
permis aux trépassés.**

Alors j'ai versé tant de larmes, Que trois moulins en ont
tourné, Petits ruisseaux, grandes rivières, Pendant trois
jours ont débordé.

Mon Dieu que j'en suis à mon aise Quand ma mie
est auprès de moi, Tout doucement je la regarde, Et
je lui dis embrasse-moi.

NEURE ANDREA
(*Herrikoia*)

**Neure andrea andre ona da,
auzoan hala diote, diote (bis)**

Erositako prezioetan,
prezio erositakoetan,
erositako prezioetan,
pozikan salduko nuke.

Lai laililai laralai laralalarai...

**Neure andrea goiz jeikitzen da
erromeria denean, denean (bis)**

Buruko mina egiten zaio,
egiten zaio buruko miña,
buruko miña egiten zaio,
lana manatzen zaionean.

Lai laililai laralai laralalarai...

**Neure andreak atorra zarra,
bera balu ezer ez, ezer ez (bis)**

Zazpi astean soinean dauka,
soinean dauka zazpi astean,
zazpi astean soinean dauka,
aldatutzeko alferrez.

Lai laililai laralai laralalarai...

NEVADARAT JOAN NINTZAN

(J. Kosteratxu)

Nevadarat joan nintzan
 dirurikan gabe,
 Handik itzultzekotan maitia,
 bortz miliunen jabe. (bis)

**Ai, ai, ai, ai, ai ! Ametsaren lana !
 Aitamen erranetarik barna ibili bagina ! (bis)**

Urteak joan ziren
 on ta tzar nahaste,
 Gure fortuna heiekin eta denak berriz haste ! (bis)

Begia zorrotz eta
 memoria argi,
 Ez den, ez den tokian maitia,
 aztaparra garbi. (bis)

Moltsa arin dut, baina,
 aberats gogua !
 Nere fortuna zare maitia,
 Nere sosegua ! (bis)

NOLĀ BIZI HĀLĀ KĀNTĀ
(Pascale et Jean-Louis Aramburu)

Üdako egünaldi bero argietan
 Aideak ekarri indar gūzietan
 Kantü berri zaikü sortü gogoetan
 Eskentzeko negüko gau lūzetan

Ainerak bezala biltzen da gizona
 Baten ahaidea denen egarria
 Algarretatzea zuin miragarria
 Etxe ondoan piztuko giro ona

Nola bizi hala kanta dio üskaldünak
Maitarzün eman ez hola adio lagünak (bis)

Aiten aitek ützi guri oparia
 Idatzian ere zer dote ederra
 Egün hedatu nahiz zier sü garra
 Agor ez dadin hitzen ütürria

Nola bizi hala kanta dio Üskaldünak
Maitarzün eman ez hola adio lagünak (bis)

OI AMĀ ESKUĀL HERRI
(Etxahun)

Anaia etxen da ezküntü
Bortxatü niz orai joaitera
Ene opilaren egitera
Pariserat banuazü.

Oi ama Eskual Herri goxua
Zutandik urrun triste banua
Adios gaixo etxen dena
Adios Xiberua.

Pariseko bizitzia
Lan kostüz irus bagoatzü
Bena berantzen zütadazüt
Zure berriz ikustia.

Bena denbora da laburxko
Otoi ama entzün nezazü
Xoko bat haüta izadazüt
Azken egün horientako.

OI GU HEMEN

(Ameslariak ; The Weavers)

**Oi gu hemen, bidean galduak (ter)
heriotz minez.**

Gizonen itzala luzea, negarrez haizea gauzan
Arbolak, erroak airean, heriotza da.

Oi gu hemen, bidean galduak...

Pobreak kalean biluzik, barnea esperantzik gabe,
doinua basoko trixtura, illunabarrez.

Oi gu hemen, bidean galduak...

Nundikan ezinaren mina, zergatik errekan iluna
egurra, kolpeka landua, bide hustuak.

Oi gu hemen, bidean galduak...



OIHAN BELTZIAN
(Beñat Sarasola ; GUK)

**Oihan beltzian xoriak kantian
Udaberria jin denian
Lumak ez dituzte galdu negian
Dira ohantzian**

Nungo oihanetik kantuz xoriak
Entzunarazi ote dauku deia
Nundik oihartzunez da xoria
Bai abertzalea
Zer kantari nori ari xori hori !

Zonbat izerdi ta odol xoriak
Ez galduak bai baliatuak
Zonbat luma ez ditu xoriak
Ohantzeratuak.
Zer kantari nori ari xori hori !

Ohantzia dauka gure herria
Luma pean latza du bizia
Hatsa ere du ezaugarria
Da libertatia
Zer kantari nori ari xori hori !

OI KANTĀ BERRI

(Mixel Labéguerie)


Oi Kanta berri ! ixilik nago, orain duela aspaldi,
Zuretzat nuen, kar bero hura, suntsitu ez da dirudi.
Beste lanetan, iragan ditut, ainitz egun ta gualdi,
Bainan oraino, ez dut ukatu, Euskara ez da Euskadi.

Oi kanta berri ! bihotzetikan, ezpainetara jalia,
Euskal airean, bidaltzen zaitut, zu neure mezularia.
Jendeen artean, izatu banaiz, beresle samurlaria,
Izan zaite zu, ene partetik, bakezale den xoria.

Oi kanta berri ! Izan zaite zu, anai arteko zubia,
Batasunetik, libertatera, gidatzen duen bidia.
kartzelan den abertzaleari, emozu doi bat argia,
Etsiturikan, den bihotzari, esperantza ur bizia.

Oi kanta berri ! gure herriak, behar du bide ta zubi,
Etxeetan ere, baitezpadako, argiarekin ur garbi.

Horiek denak, ez dire aski, bizi dadien Euskadi,
Hainbat oraino, beharko ditu, kanta bat eta kanta bi (bis)



ONDARRABIĀ TĀ DONOSTIĀ (Etxahun)

Coxo da bizitzia Xibero gainean
Mendi horien artian trankilatatean
Hargatik aitortzen dut mūgaz bestaldian
Badirela xoko hunak, itsas bazterrian
kantatzera banua hek pentsamentian

**Ondarrabia ta Donostia ere bai Bilbao
Euskal Herrian, eder zidie hain paregabeko.
Ene bihotza hartū dūzie osorik betiko
Ziek egin batzarri ederra ez dit ahantziko.**

Xokota batetan da fierik Ondarrabi
Urez inguraturik, irriz Hendaiari
Bere gaztelū zahar misteriosareki
Lehenago gūdūetan nola kolpatūrik
Santa Maria eliza huntarzūnez fundi.

Monte Igeldotik zit, agur Donostia !
Denen artian zira arrosa lilia
Kontxaren űngūrian bipil da herria
Bere mila kolorekin espantagarria
Ta errotik Euskaldun da hanko jentia.



ORHIKO TXORIA

(Roger Idiart; A. Gorostarzu)

Jente gaztia dadila
 Etxetik hürün lanila
 Ez erran galdürik dela :
 Itzül ditake berehala

Jin bedi gure artila Orhiko txoria orhila (bis)

Txorittuaren hegala
 Arin aidia bezala :
 Gaztek begira dezala
 Azkar üskaldun odola.

Txoriak jiten zaizkula
 hüts egin gabe seküla
 Lehenik bat, gero mila :
 Txortak egiten ixtila.

Txoria izan dadila
 Üskaldun gazten mudela :
 Mutiko ta neskatila,
 Tziauste denak sor lekhila !



PENÀ BÀIONÀ*(Dominique Herlax ; Udo Jurgens)*

**Dans notre cher petit Bayonne, il est une peña,
la Peña Baiona.**

;
Ils portent fièrement partout
leurs foulards bleus et blancs,
à Dax ou à Narbonne
on ne voit plus que ces gars-là,
qui ont dans l'cœur,
leurs chers joueurs du rugby roi.

Chez nous à Jean Dauger
ou bien partout à l'extérieur,
sur tous les stades enfiévrés
elle nous met tant d'ardeur.

C'est la Peña qui crie sa joie sur cet air-là :

Allez, Allez !

**Les bleus et blancs de l'Aviron Bayonnais,
C'est la Peña, c'est la Peña Baiona,
On est tous là allez les gars, encore une fois,
Allez, Allez !**

**Les bleus et blancs de l'Aviron Bayonnais,
Jouez au ras puis écarterez, c'est l'essai,
On applaudit à vos exploits, c'est gagné.**

Dans notre cher petit Bayonne il est une peña...

Partout, nos joueurs brillent souvent
la victoire est au bout.
Les rues de bleu et blanc s'habillent
et la fête et partout.

C'est la Peña qui crie sa joie sur cet air-là :

Allez, Allez ! Les bleus et blancs ...

LA ,LA, LA, LA, LA...

**Dans notre cher petit Bayonne il est une peña,
la Peña Baiona.**

AVIRON BAYONNAIS

(Jean-Claude Iriart ; Udo Jurgens)

Mende Bat ari zaukula azkar eta erne, Aviron Bayonnais.

Errugbiñ premiatsu da elkartasuna
Kontrakoen errespetua ta lagunena
Horrela baitugu lortzen garaipena.

Dena xuri urdinez beztitzen da Baïona
Bihotz guzietan sendi da alaitasuna
Guzietan nagusi da gure peña.

Agur agur

**Aviron Bayonnais-ko ekipari
Gure herriko xuri urdineri
Biltzen gaituen "Jean Dauger" zelaiari
Txalo Txalo
Gure hamabost jokolarieri
Gogotik ari diren mutileri
Baiona ohoratzen duteneri.**

Mende Bat ari zaukula azkar eta erne
Aviron Bayonnais.

Gure uztartzea denetan da famatua
Hegaletan ardura markatzen entsegua
Euskal Herri guzitik sustengatua.

Cazttxoen formakuntzan guziz aritua
Publikoak beti danik suhar jarraitua
Goratuz aspaldiko izpiritua.

Agur agur


**Aviron Bayonnais-ko ekipari...
LA, LA, LA, LA, LA...
Mende Bat ari zaukula azkar eta erne,
Aviron Bayonnais.**

PILOTARIEN BILTZARRA (Etxahun)

Agur, agur, jente güziak ! agur bihotzetik !
Zaharrak eta gaztiak bildürik hürüntik !
Eskualdün joko jaunari bere lür harrotik
Lili eder bat da egün zabaltzen itzaletik.

**Gizon gaztentako beharra ta zaharren indarra
Gora khanta obra ederra, pilotarien biltzarra.**

Gurè Jinko Jaunak deizkü ezarri mündian
Txorik kantüz oihanian et'ardik mendian,
Untzietan mariñelak itsaso erdian
Eta pelota maitia Eskual-Herri aldian.



Arbolarik ederrena oihanian haitza,
Aize handirenak dio eztela ez thatxa :
Eskualdün pilota horri ez besuak khütxa ;
Bethi nausi izan dadin, denek dezagün altxa !

XORIAK BEZALA

Xoriak bezala, kantuz ari gira
Denbora fite pasatzen da, ai ai
Xoriak bezala, kantuz ari gira
Denbora fite pasatzen da

**Beti gazte egoiteko sekretu bat ba da hemen
Bizi on bat pasatzeko gauden Euskal Etxean**

Txistu bat aski da jende guzien biltzeko fandango bat
elgarrekin emaiteko, ai-ai-ai (berriz)

**Beti gazte egoiteko sekretu bat ba da hemen
Bizi on bat pasatzeko gauden Euskal Etxean**

POTTOKĀ MENDIĀN

(Babi Irazabal; Beñat Eyherabide)

Pottoka mendian jauzika ibilki
Buztana airean salbaia iduri.

Ezin harrapatuz Txomin da erori
Pottoka nausi da gure gizonari. (bis)

tibitibi-damdam, tibitibi-damdam,
tibitibi-dam, tibidam dam dam (bis)

(Gure gizonari)

Denboran pottokak ez emaiten sosa
Ez zuen ez egiten Parisen afera.

Neuilly-n ibiltzeko ez zuen usain ona
Adiskidendako ez aski ederra. (bis)

Txominek menditik jautsi du pottoka
Ileak mozturik pentzetan emana.

Egun guziet hartzen bere sukrea
Iduri du orai Vincennes-en sortua. (bis)

Behin hartu eta gure lur maitea
Nahizan ebatsi gure Pottoka.

Jakin behar dute jakindezatela
Euskalduna ez dela ez dela astoa. (bis)


SE CĀNTO
(*G. Phoebus*)

**Se canti
jou que canti
Canti pas per jou
Canti per ma mio
qu'ey auprès de jou**

Aqueros mountagnos
Que tan hautes soun
M'impéchoun dé bédé
Mas amours oun soun

Debat ma frinestro,
ja un aousérou
Touto la noeyt canto,
Canto sa cansou.

Aqueros mountagnos
Que s'abachéran
É mas amourettos
Que parechéran



SOTOKO OPORRĀ*(Hitzak eta Aireak : Pierre Dibarrart)*

Aitak eman zerautan zerurat juaitean
 Enetzat mahastia hartzeko lanean
**Arta nezala,
 aitak bezala,
 Aitzur eta jorra,
 Laguntzat hor nuela sotoko oporra.**

Etxe xuri ttiipi bat badut mahastian
 Sagar, udare, piko, mertxiken artian
**Etx'aitzinean
 Loren erdian
 Baratze alorra
 Dutzuluaren pean, sotoko oporra.**

Ene gazte lagunak, ezkondu direnak
 Hurrez beteak dire orai gehienak
**Balute ere bertze hainbertze
 Ez naiz jeloskorra
 Haur ainitz bezain on dut... sotoko oporra.**

Mahastian xoriek goiz dute kantatzen,
 Orduan bozkanoz lanari naiz lotzen ;
**Gero zait hasten
 Bihotza hozten,
 Agortzen zintzurra,
 Laster dut eskuratzen... sotoko oporra.**

Bertsu hauk egitean ipar-goxoa zen,
 Sotoan ari nintzen arnoen aldatzen ;
**Donado henien,
 Zoin ongi naizen,
 Egin dut aitorra.
 Tente xutik aldean... sotoko oporra.**

TOPA DAKIGUN
(Jon Sarasua ; Oskorri)

Errioxar Baigorriko, Bakio nahiz Getariko
Topa dagigun eta bakean bizi gaitezen betiko. (bis)

Umeak arretaz horni / Gazteei hitza eskaini
 Gaztetxoago eta haurrago / Izan gaitezen geroni.

Errioxar Baigorriko, Bakio nahiz Getariko
Topa dagigun eta bakean bizi gaitezen betiko. (bis)

Ez uka amonei hitzik, Entzun agureei pozik
 Zaharra ez da izandakoa, Luzaroan dena baizik.

Errioxar Baigorriko, Bakio nahiz Getariko
Topa dagigun eta bakean bizi gaitezen betiko. (bis)

Hierarkia da lehorra, Harremana emankorra
 Errespetuan dago gordeta, Emakumeen altxorra.

Errioxar Baigorriko, Bakio nahiz Getariko
Topa dagigun eta bakean bizi gaitezen betiko. (bis)

TRISTE BIZI NAIZ

(Indalezio Bizkarrondo "Bilintx")

Triste bizi naiz eta, hilko banintz hobe,
badaukat bihotzian, zonbeit atsegabe.

**Maite bat maitatzen det, bainan haren jabe
sekulan izaiteko, esperantzik gabe. (bis)**

Bihotz baten lekuan, mila banituzke,
zuretzako maitia, izango lirake.

**Baina mila lekuan, bat besterik ez det ;
har zazu bai, maitia, bat hau mila orde. (bis)**

Ene maite pollita, nola zera bizi ?

Zortzi egun hauetan, etzaitut ikusi.


**Badakit zabiltzala, nigandik ihesi,
ez didazu emaiten, atsegabe guti. (bis)**

TXALAPARTA

(Gorka Knörr)

Tiriki-trauki hiru ta lau dira zazpi,
Xurruxumurru bat batean dira urrun
Tiriki-trauki ezker eskubi
Bien artean dago zubi,
Hots bare-bare hor leiho sare
Hiru ta lau dira bi.

Hiru ta lau dira... (la dernière fois)
BAT, BAT, BAT, BAT !
La lalala...



TTIKI-TTIKITIK
(*Herrikoia*)

Ttiki-ttikitik aitak eta amak,
fraide ninduten nonbratu,
bai eta ere, Salamankarat,
ixtudiante bidaldu.

**Salamankarat nindoalarik,
bidean nuen asmatu
ixtudiante tunante baino,
hobe nuela ezkondu. (bis)**

Ostatu xume pollit batean
gosez gelditu bainitzen,
nexka xarmant bat ari zitzaitan
mahainean zerbitzatzen ;

**begia kartsu, ezpaina lore,
enekin aise mintzatzen,
aingeru hori, ordu berean,
ene bihotzian sartu zen. (bis)**

Hitz erdi batez maite nuela,
erran nion beharrira ;
bainan gaixoa, herabetua,
ihesi joan zen kanpora.

**Ez ahal nuzu, izar ederra,
kondenatzen ifernura !
Ez da sekulan ene gogotik,
histuko zure itxura. (bis)**

Aita Jainkoak egin banindu
zeruetako giltzari
azken orenean jakingo nuen
atea nori ideki :

**lehenik Aitari, gero Amari,
gero anai-arreberi,
eta azkenean, segeretuan,
ene maite pollitari. (bis)**

TXIKIA

(Pantxoa Carrère ; Peio Ospital)

Txikia zuen guda-izena
 Bera gizon osoa izan arren
 Mendizabal, Sasetaren urrena
 Biak txiki, bizkor eta lerdan
 Saseta hil zen gudarien aurrean
 Mendizabal hil zaigu bakarrik
 Bainan biak daukate Herri osoa
 Atzo ta gaur heien atzetik
 Euskadirentzat hil dire-ta
 Gorputzak arantzaz beterik.

Harro hadi kantauri Itxasoa
 Ta heien betiko loa
 Betiko kanta zak.
 Geroari esaiok olatuetan
 Herri-izarrak ez direla itzaltzen,
 Gure haurrek biharko ikastoletan
 Heien izenak abestu ditzaten,
Arantzetan biak hil baitziren.

Harro hadi kantauri Itxasoa
 Ta heien betiko loa
 Betiko kanta zak.
 Geroari esaiok olatuetan
 Herri-izarrak ez direla itzaltzen,
 Gure haurrek biharko ikastoletan
 Heien izenak abestu ditzaten,
Herriarentzat biak hil baitziren.

TXURI URDIN
(Ricardo Sabadie)

Txuri urdin, txuri urdin maitea
Txuri urdin, txuri urdin aurrera !
Beti, beti, maite, maite, maitea,
Donostia, Donostiarra ! (bis)

Aurrera mutila, aurrera Gipuzkoa !
Aurrera txuri urdina ! (bis)

Gazte, gazte, gazte, gazte, gazteri,
gazteriarri aupa mutila,
Gazte, gazte, gazte, gazte, gazteri,
gazteri txuri urdina ! (bis)



URRĀSKIDE (COMPĀGNERO)*(Mixel Jorajuria)*

Euria jauts'ala
 Bideko odola
 Urak badarama
 Oi ! Orhoimena !
 Euri bihotzetan
 Nigar ta hotsak
 Uretan itoak,
 Ze'in orduan ?

Gure moldean kanta ixtoria
Gure moldean urratu bidea,
Urraskideari
Munduan gaindi zabaldu
Eskua

Uhar ta erauntsi,
 Izetik bizi :
 Erna erna hazi
 Ta egin hozi !
 Uhar ta erauntsi,
 Izetik bizi :
 Ernatu da hazi,
 Egin du hozi.

URTE BÅTEZ

(Mexique, Aguxtin Larra)

Urte batez maite bat izan dut nik.
 Urte bat betetzen du egun hunetan
**Oroitzen naiz nola zure besoetan, lokartzen nintzan
 fidatu ta bihotza eskainirik. (bis)**

Oroimen hori hasi nahi nuke garaiz,
 Nahi nuke bai samintasunez mozkortu,
**Nahi zinduzket adimendutikan kendu, et'alferrik
 mozkortzean gehiago oroitzen naiz. (bis)**

Denbora hori ez litaike bihurtu
 Maitasuna zuk urrez ordaindu nauzu
**Ta bihotza nahigabez bete didazu, esker gabe !
 Norbaitek berdin ordainduko zaitu. (bis)**

Zur' epaile denbora da izango
 Nahiz eduki daukazun edertasuna
**Gaur izanik, maite asko dituzuna... begira gero !
 Ez ote zaituen nihork maitatuko ? (bis)**

XALBĀDORREN HERIOTZEAN

(Xabier Lete)

Adixkide bat bazen
 orotan bihotz-bera,
 poesiaren hegoek,
 sentimentuzko bertsoek
 antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari
 bakardadez josia,
 hitzen lihoa iruten
 bere barnean irauten
 oiñazez ikasia,
 ikasia.

**Nun hago, zer larretan
 Urepeleko artzaina,
 Mendi hegaletan gora
 Oroitzapen den gerora
 lhesetan joan hintzana. (bis)**

Hesia urraturik
 libratu huen kanta,
 lotura guztietatik
 gorputzaren mugetatik
 aske senditu nahirik.
 Azken hatsa huela
 bertsorik sakonena,
 iñoiz esan ezin diren
 estalitako egien
 oihurik bortitzena,
 bortitzena.

**Nun hago, zer larretan
 Urepeleko artzaina,
 Mendi hegaletan gora
 Oroitzapen den gerora
 lhesetan joan hintzana. (bis)**

XORIERI MINTZO ZEN

(Mixel Labéguerie)

**Xorieri mintzo zen, mintzo zen errekarri,
oihaneko zuhaitzari ta zeruko izarrerri.
Mintzo zen haizeari, xoro batentzat zaukaten.
Xorieri mintzo zen, xoro batentzat zaukaten.**

Ez zakien irakurtzen
gizonen liburutan,
bainan ongi bazakien
zeruko seinaletan,
zeruko seinaletan
ta jenden bihotzetan **Xorieri.**

Hurrek zuten harrikatzen
zahar gaztek trufatzen.
Etxekoek berek ongi
laneko baliatzen.
Laneko baliatzen
eta gosez pagatzen **Xorieri.**

Hil da xoroa bakarrik
bakarrik da ehortzi.
Ez zen han kristau bat ere
salbu lau hilketari,
salbu lau hilketari
ta apeza kantari **Xorieri.**

Hil hobian ezartzean,
haizea zen gelditu.
Xoriak ziren ixildu,
zerua zen goibeldu.
Zerua zen goibeldu
ta jendea oroitu **Xorieri.**

ZANTZIKITIN

(Herrikoia)

Zantzikitin ! Zantzikitin ! Ibiltzen dire, Elorrioko kalean,
Ama alabak tronpeta jotzen, zazpi astoren gainean. (bis)

Astoak ziren txiki-txikiak, astoak beti kristona
Nola demontre konponzen zira, zazpi astoren gainean

Saltzen, saltzen, xakur txiki baten karameloa,
"Esta muy bien" esaten du konfiteroak,

Cuando vamos a Otxandiano, Andra Mari egunean ?
Tomaremos txokolate sombrero kupa altian ! (bis)



ZAZPI ESKUAL HERRIEK*(Gratien Adema «Zaldubi» - Jose-Antonio Larrañaga «Urko»)*

**Zazpi Eskual herriek
bat egin dezagun
Guziak beti, beti,
gauden gu Eskualdun.**

Agur eta ohore Eskual Herriari :
Lapurdi, Baxe-Nabar, Xibero gainari
Bizkai, Nabar, Gipuzko eta Arabari,
Zazpiak bat besarka lot beitez elgarri.

Haritz eder bat bada gure mendietan
Zazpi adarrez dena zabalzen airetan.
Frantzian, Espainian, bi alderdietan :
Hemen hiru, ta han lau, bat da zazpietan.

Hi haiz, Eskual Herria haritz hori bera,
arrotza nausiturik moztua sobera.
Oi gure arbasoak ez, otoi ez beira,
zein goratik garen gu jautsiak behera !



ZAZPIAK OIHAL BATETIK*(Jose Mari Ostolaza XALBARDIN; Fernando Unsain)*

Mundu guztiak aditutzen du,
 euskaldunaren negarra.
 Alde batera nahiago nuke,
 ez banintz hemengotarra.

**Enpeinatzea ez bada libre, alferrik dugu indarra.
 Hau da txoria gari tartean, goseak egon beharra.**

Antzerki hontan lau pertsonaia,
 ta jokolari bakarra.
 Arbolak berak erakusten du,
 hostoa eta adarra.

Enpeinatzea ez bada libre...

Sutan pizturik darrai oraindik,
 sugai berriz lehengo gerra.
 Oharkabeen ez zen mintzatu,
 Txirrita poeta zarra,

Enpeinatzea ez bada libre...

Zazpi ahizparen gain den oihala,
 ebakirikan erditik,
 alde batera hiru soineko,
 utzirikau lau bestetik

**Guraizakin bereizi arren, bakoitza bere aldetik
 ezagutzen da jantzi direla, zazpiak oihal batetik**

Oihal bera da gure jantzia,
 sortu gintuzten hunetik.
 Ez du munduak kemenik sortu,
 kentzeko gure soinetik.

Guraizakin bereizi arren...

ZIBURUTIK SARARAT*(Christoph Dufau Nehor eta Dufau)*

Ziburutik Sararat izatu naiz joana,
 Neure lehenagoko maite baten gana ;
 Han arribatu gabe, entzun nuen fama,
 Guarda gazte batekin zela hitzeman.


Lalala ; lalalala,lala ; lalala ; lalalala,lala...

Maitia, bizi zaitte gazte'ta lorios,
 Bai eta fidel izan, hitzeman ez geroz.
 Ondoko urrikiak ez du balio deus ;
 Huntan kitatzen zaitut, maitia, adios.

Lalala ; lalalala,lala ; lalala ; lalalala,lala...

Uso xuri pollita, fin eta fidela,
 Deus makhurrikan gabe joan zaizkit gibela ;
 Jende hitsak badakit nonbeit badirela...
 Ez bainuen pentsatzen holakoa zinela !

Lalala ; lalalala,lala ; lalala ; lalalala,lala...



LES PARTENAIRES DE LA MAISON BASQUE





Conception : Mathis Roux
Illustration : lolalaloose



Maison basque de Bordeaux

7 Rue du Palais de l'Ombrière
33000 Bordeaux

05 47 79 41 18

contact@maisonbasque.org

www.maisonbasque.org